

Informazio ez-finantzarioaren egoera
orria
2023
matia

Aurkibidea

Gure lehendakariaren agurra	3
1. Matia buruz	5
2. Memoriaren irismena	7
3. Asmoa, jomuga eta balioak	11
4. Ingurunearen analisia	12
5. Erronka estrategikoak / Politikak	14
6. Mehatxuak eta aukerak	28
7. ISO arauak, jasagarritasuna eta GJHak	30
8. Matia materialtasun analisia	32
9. Identifikatutako premiei emandako erantzuna	38
10. Negozio eredua. Erakunde egitura	39
11. Jarduera eta jarduketa aipagarriak	41
12. Sozietatea – Informazio ekonomikoa	46
13. Sozietatea – Hornitzaileak	62
14. Sozietatea – Bezeroei lotutako gaiak	66
15. Boluntarioak – MatiaZaleak	72
16. Sozietateari eta langileei buruzko gaiak	75
17. Giza eskubideak	114
18. Ustelkeria eta eroskeria	124
19. Ingurumenari lotutako gaiak	129

Gure lehendakariaren agurra



Urte bat gehiago Matia Fundazioaren bizitza luzean. Betetako urte bakoitza aurrerapauso bat da gure eguneroko konpromisoan: «pertsonei zahartze prozesuan laguntzea, haien ongizatea hobetzeko eta haien autonomia eta duintasuna sustatuko dituzten ezagutza eta zerbitzu pertsonalizatuak sortzeko».

Gaur egun, ohikoa da, oraindik, COVID-19 gaixotasunak ekarri zuen pandemiari lotutako denbora erreferentzia, maila pertsonalean zein maila kolektibo edo sozialean. Behin eta berriz erabiltzen dira «pandemiaren aurretik» edo «pandemiaren ondoren» bezalako esamoldeak, eta mugarri izaera hartu dute. Matia Fundazioa, joan den urtean adierazi genuenez, gai izan zen garai hartan bizi izan ziren esperientzia gogorretatik irakaspenak ateratzeko eta hobekuntzari, aurrerapenari eta berrikuntzari begira aplikatzeko. Azpimarratu nahi dut, gainera, gure idearioan funtsezkotzat hartzen dugun alderdi bat, aspalditik datorrena eta are heldutasun eta garrantzi handiagoa hartu duena: gure lankidetza eta elkarlana maila guztietako erakunde publikoekin, esparru soziosanitarioko eta esparru akademikoko hainbat erakunderekin, boluntariotzan diharduten erakundeekin eta beste batzuekin.

Aurreko ekitaldian, Europar Batasunak estatuei emandako Next Generation funtsak eta Matia Fundazioak funts horiek lortzeko izan zituen aukerak aipatu genituen. Arestian adierazi dugunez, Matia Fundazioa harremanetan dago erakunde publiko guztiekin, lankidetzan jarduteko prest. Oso pozgarria izan da Matia Fundazioarentzat haien babesa jasotzea bi azpiegitura berri eraikitzeko —2023an inauguratu ziren—. Ekainean, Donostiako Lugaritz proiektuak (dagoen lekua toponimoagatik deitzen da horrela) «Babesdun etxebizitzak» guneko ateak ireki zituen. Oso harro gaude erreferentzia bihurtu delako bizitoki mota hori aukeratzen duten adinekoen bizi kalitatea hobetzeko interesa duten —eta kontzientziatuta dauden— pertsona, erakunde publiko eta pribatu, elkarte eta abarrentzat.

Uztailean, berriz, Bizikidetzak Unitateetako Etxebizitzak multzoak ireki zituen ateak Usurbilen. Guneari Egurtzegi deitu diogu, eta, horrela, dagoen lekua toponimo historikoa berreskuratu.

dugu. 110 bizitoki dira 127 pertsonarentzat, eta, arkitekturari dagokionez, pertsonarengan ardaztutako arretari esker ezagutu eta praktikan jarri ahal izan dugun ikuspegiari jarraikiz sortu dira. Egurtzegi, zilegi bekit esatea, eredu ari da bihurtzen; hain zuzen ere, udalerrian txertatutako bizitza komunitarioarena, belaunaldien arteko harremanena eta zahartzearekin batera askotan gertatzen diren ikusezintasunaren eta anonimotasunaren arbuioarena.

Boluntario gehiago lortzeko ahaleginean, gogoeta lan bat egin genuen, eta, hari esker, Matia Fundazioaren asmoan parte hartzearen eremu horretako alde indartsuak eta ahulak identifikatu genituen. Ondorioz, aldatu egin da lan hori koordinatzeko modua eta aukera gehiago eskaini dira boluntariotza lanetan prestatzeko.

Azpimarratu nahi dut, berriz ere, erakunde publikoekin lankidetzan aritzeko asmo tinkoa dugula. Asmo hori Matia Fundazioaren legatuaren parte da, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen da. Mende bat baino gehiago darama Matiak horrela. Irabazi asmorik gabeko fundazioa izateak aukera ematen du, beste batzuetan esan dugunez, alderdi publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren bidetik aurrera egiteko, betiere pertsonen alde. Aurkezpen hau amaitzeko, Nuccio Ordineren azken obretako batetik hartutako hitz hauek aipatuko ditut: «Inor ez da irla bat, inor ez da gai bakarrik moldatzeko; gizaki oro kontinentearen zati bat da, ozeanoaren zati bat».

1. Matiari buruz

Jose Matia Calvo Laudion jaio zen, 1806an, eta Cádizen hil, 1871n. Gazte-gaztea zela Filipinetara emigratu zuen eta han ezagutu zuen, baita geroago zuzendu ere, herrialde horren eta Espainiako metropoliaren arteko merkataritzaren zati handi bat. XIX. mendearen laugarren hamarkadan Espainiara itzuli eta Cádizen finkatu zen. Bertatik zabaldu eta dibertsifikatu zuen bere merkataritza enpresa koloniala, eta nazioarteko bihurtu. 1870ean idatzi zuen testamentu luze bezain zabalean, bere jarduera profesionalaren eta giza eta gizarte harremanen berri ematen zuten datu ugari jaso zituen. Besteak beste, hau zioen testamentuak: bere aberastasun handi haren zati bat bi zahar egoitza sortzeko erabil zedila, bat Cádizen eta bestea Donostian.

Matiak 1881ean ekin zion bere ibilbideari Jose Matia Calvoren legatuari esker eta helburu honekin:

«Adinduei edota lanerako ezintasun osoa duten pertsonen babesa ematea, baliabideak eskaintzea eta gaixotasunei aurre egiten laguntzea».

Gaur egun, irabazi asmorik gabeko fundazio pribatua da, interes orokorreko erakunde izendatua. Patronatua hainbat esparru profesionaletatik datozen 7 pertsona ezagunek osatzen dute eta independentzia osoz eta borondatez parte hartzen dute haren gobernantzan.

Zerbitzu soziosanitarioak ematea da Fundazioaren jarduera nagusia. Kasurik gehienetan, itunpekoak izaten dira zerbitzuak, EAEko herri administrazio publikoekin elkarlanean emandakoak; hauekin, zehazki:

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin (gizarte zerbitzuak).

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin (osasun zerbitzuak).

2023an, 31.708 lagun artatu ditugu gure osasun zerbitzuetan, egoitzetan, bizikidetza unitateetan, eguneko zentroetan eta abarretan.

Enplegu sorrerari dagokionez, 1.568 profesionaleko taldea dauka Matiak. Horietatik % 90 adinekoei edo desgaitasuna duten pertsonen zuzeneko arreta eskaintzen dieten profesionalak dira, eta beste % 10 kudeaketan eta laguntza jarduerari eusteko arloetan aritzen direnak.

Euren denbora eskuzabaltasun osoz eskaintzen duten beste 3.220 lagun ere aritzen dira gurekin, beharra dutenei lagun egiteaz gain, kultura eta aisia jarduerak sustatzen, egunero, gure egoitzetan.

Azkenik, 2003az geroztik, Matia Institutu Gerontologikoaren bitartez jorratzen du Matiak ezagutza sortzeko eta berrikuntza bultzatzeko konpromisoa.

Matia Institutua erreferentzia bihurtu da arlo psikosozialetako ezagutza eta, batez ere, plangintza gerontologikoan eta pertsona ardatz duen arreta progresiboa ezartzeko jardunean, betiere ebidentzia oinarrituta.

Horregatik guztiatik, harro esan dezakegu sortzailearen legatuaren inpaktuak hazkunde esponentziala izan duela pertsonekin horren konprometituta dauden Euskal Autonomia Erkidegoan, Gipuzkoan eta Donostian bereziki.

2. Memoriaren irismena

Matiaren informazio ez-finantzarioaren egoera orriaren memoria da hau. Erakunde hauek jorratutako jarduerak eta emandako zerbitzuak biltzen ditu: José Matia Calvo Fundazioa, Gerozerlan SLU, Matia Enea SLU (antzinako Matia Servicios Sociales SLU), Zaintzatari Matia SLU, Matia Goxara SLU eta Matia Institutu Gerontologikoa Fundazioa – INGEMA. Berdintasuna printzipioa gidari dela kudeatzen dira enpresa guztiak, eta horregatik azaltzen dira txosten honetan.

Matiaren finkatze perimetroak hauek hartzen ditu barne:

José Matia Calvo Fundazioa (aurrerantzean <i>Matia Fundazioa</i>)	• Helburu soziala: pobreei, adinekoei eta gaixoei arreta ematea. • Forma juridikoa: fundazioa. • Helbidea: Pinu Bidea 35, 20018 Donostia (Gipuzkoa). • IFZ: G-20053583. • Erregistroko datuak: G-16, EAEko Fundazioei buruzko Erregistroan inskribatuta. • EJSN: 86- Osasun jarduerak.
Gerozerlan SLU (aurrerantzean <i>Gerozerlan</i>)	• Helburu soziala: gizarte zerbitzuak eskaintzea adinekoei, desgaitasun fisikoak eta psikikoak dituztenei eta arreta berezia behar duten mendeko pertsona guztiei. • Forma juridikoa: pertsona bakarreko sozietate mugatua. • Helbidea: Joseba Zubimendi kalea 1, 20015 Donostia (Gipuzkoa). • IFZ: B-20787735. • Erregistroko datuak: Gipuzkoako Merkataritza Erregistroko 1987 liburukia, 1. folioa, SS-21404 orria, 1. inskripzioa. • Bazkide bakarra: José Matia Calvo Fundazioa.

Matia Enea SLU (aurrerantzean Matia Enea)

- EJSN: 87- Egoitza establezimenduetako laguntza.

- Helburu soziala: zahar egoitzak sustatzea (Matia Fundazioaren ondareko sozietatea).

- Forma juridikoa: pertsona bakarreko sozietate mugatua.

- Helbidea: Zarautz etorbidea 123, 20018 Donostia (Gipuzkoa).

- IFZ: B-20441440.

- Erregistroko datuak: Gipuzkoako Merkataritza Erregistroko 1285 liburukia, 1. folioa, SS-5688 orria, 1. inskripzioa.

- Bazkide bakarra: José Matia Calvo Fundazioa.

- EJSN: 6831- Higiezin jabetzako agenteak.

Zaintzatari Matia SLU (aurrerantzean Zaintzatari)

- Helburu soziala: irizpen mediko eta psikologikoak egitea, desgaitasuna baloratzeko eta pertsonen mendekotasuna baloratze aldera (pertsonen berek edo ofizioz eskatuta) beharrezkoa den informazioa lortzeko, dauden zerbitzuak eskuratu ahal izan ditzaten.

- Forma juridikoa: pertsona bakarreko erantzukizun mugatuko sozietatea.

- Helbidea: Pinu Bidea 35, 20018 Donostia (Gipuzkoa).

- IFZ: B10799443.

- Datuak: 3052 liburukia, 195. folioa, 8. sekzioa, SS 44835 orria, 1. I/A.

- EJSN: 8811- Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuen jarduerak.

Matia Goxara SLU (*aurrerantzean Goxara*)

- Helburu soziala: eguneko zentroaren kudeaketa eta adinekoentzako etxez etxeko laguntza.
- Forma juridikoa: pertsona bakarreko erantzukizun mugatuko sozietatea.
- Helbidea: Igartzako plaza 6, 3. A, Beasain 20200, Gipuzkoa.
- IFZ: B-20737300.
- Gipuzkoako Merkataritza Erregistroko SS-19374 orria, 1904 liburukia, 26. folioa.

Matia Institutu Gerontologikoa Fundazioa – INGEMA (*aurrerantzean Matia Institutua*)

- EJSN: 8811- Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuen jarduerak.
- Helburu soziala: ikerketa, garapena, berrikuntza teknologikoa eta zientziaren zabalkundea.
- Forma juridikoa: fundazioa.
- Helbidea: Pinu Bidea 35, 20018 Donostia (Gipuzkoa).
- IFZ: G-20857082.
- Erregistroko datuak: F-175, EAEko Fundazioen Erregistroan.
- EJSN: 72- Ikerketa eta garapena.

Matiak kontrolatzen ditu erakunde guztiak; honela, hain zuzen, banan-banan hartuta:

- **Matia Institutua:**

- Haren sortzailea delako eta abian jartzeko zuzkidura hornitu zuelako.
- Haren patronatuko kideak izendatzeko ahalmena duelako; izan ere, Matiaren patronatuko kideak izan behar dute, halaber, Matia Institutuaren patronatuko kideek, bertako estatutuetan zehaztuta dagoenez.
- Matia Fundazioko zuzendaritza taldea arduratzen delako Fundazioaren zuzendaritzaz ere.

- **Gerozerlan, Matia Enea, Goxara eta Zaintzatari:**

- Sozietate horien bazkide sortzailea eta gaur egun bazkide bakarra delako; kapital sozial osoaren titularra ere bada.

«*Global Reporting Initiative*» (GRI) delakoaren estandarrei jarraituz idatzi dugu memoria hau —erakunde baten inpaktu ekonomiko, ingurumeneko eta sozialak jendaurrean plazaratzeko jardunbiderik egokienak biltzen ditu—, eta 11/2018 Legean informazio ez-finantzarioaren eta aniztasunaren arloan ezarritako betekizunei jarraikiz.

Taxonomiaren arloan ezarritako baldintzak betez (EB 2020/852 Erregelamendua eta EB 2021/2178 eta EB 2021/2139 egintza eskuordetuak), Matia ez da interes publikoko erakundetzat (IPEtzat) hartzen; izan ere, negozio zifraren zenbateko garbia eta batez besteko plantilla ez da 2.000.000.000 eurotik eta 4.000 langiletik gorakoa, hurrenez hurren, ekitaldi bakoitzaren itxiera datan eta segidako bi ekitalditan.

Beraz, ez genuke jarduera hautagarriaren eta ez hautagarriaren proportzionaltasuna zabaltzeko betebeharririk izango, ezta ekitaldi honetako araudian adierazitako KPI adierazleena ere.

3. Asmoa, jomuga eta balioak

ASMOA

Pertsonei zahartze prozesuan laguntzea, haien ongizatea hobetzeko, haien autonomia eta duintasuna sustatuko dituzten ezagutza eta zerbitzu pertsionalizatuak sortuz.

JOMUGA

Gizartea eraldatzeko eragile bat izatea, modu jasangarrian erantzun aditua eta pertsonengan ardaztutakoa emango duena zahartzearen eta desgaitasunaren esparruetan.

HARREMANETARAKO BALIOAK



ARRETAKO BALIOAK



4. Ingurunearen analisia

Azken hamarkadetan, Matiaren jarduerak hazkunde handia izan du, zahartzen diren pertsonen ongizatearen alde lanean ari den lurraldeetako bilakaera demografikoarekin bat.

2021-2024 aldiko Adinekoekiko Euskal Estrategia (Eusko Jaurlaritza, 2023) biltzen duen dokumentuan argitaratutako informazioaren arabera:

2020an, 65 urteko eta hortik gorako 499.432 herritar zituen Euskadik, biztanleriaren % 22,5. Kopuru horretatik, 80 urtetik gorakoak dira 157.950 herritar; hots, biztanleria osoaren % 7,1 eta adinez nagusiko biztanleriaren % 30,7.

Arrazoi hauek eragin dute adinik handieneko biztanleriaren ehunekoaren igoera:

- Jaiotza tasa txikia.
- Bizi itxaropenaren gorakada eta heriotza tasaren beherakada.

EINen behin-behineko datuek diotenez, 2020aren hasieran 83,2 urtekoa zen Euskadiko batez besteko bizi itxaropena, laugarren handiena Espainiako Estatuko autonomia erkidegoen artean.

Alde batetik, hau diote aurreikuspenek: 2060rako, bikoiztu egingo da 80 urtetik gorako herritarren kopurua, eta biztanleria osoaren % 15,6ra iritsiko da. Urte horretarako, adinez nagusi diren biztanleen ia erdiek 80 urte baino gehiago izango dituzte. Eta are nabarmenagoa izango da 100 urte edo gehiago dituztenen kopurua.

Osasunaren eta mendekotasunaren arloko erronkak

Bizi itxaropenak gora egitearekin batera, areagotu egin da mendekotasun egoerak pairatzen dituzten adinekoen kopurua.

Gizarte zerbitzuen eskariari buruzko estatistikaren / Gizarte beharrei buruzko estatistikaren (GZEE-GBE) datuen arabera, 2006an mendekotasun erabatekoa edo larria zuten 75 urtetik gorakoek % 12,5ek (Barthel/Lawton ikerketa mistoa); 2018an, berriz, % 20,4ra igo zen portzentajea.

Dementzia da zahartzeak dakarren beste erronka bat. Dementziaren prebalentziari buruzko datuen arabera, 2019an Espainiako Estatuan % 1,83koa zela diote estimazioek; 2025erako, berriz, dementziak biztanleriaren % 2,13ri eragingo diola aurreikusten da. Gaitzaren prebalentzia eta intzidentzia proiektzioek adierazten dutenez, handitzen jarraituko du dementziadunen kopuruak, batez ere adinean aurrera doazen artean.

Eraldaketa iraupen luzeko zainketetan

Urteak dira jada zenbaitek zera iradokitzen duela, iraupen luzeko zainketen eredua aldatu egin behar dela. Gainera, behar hori areagotu egin zen pandemiaren garaian. Familia egituren aldaketak, adinekoen nahiak eta arreta ikuspegi berriak direla medio, beste era bateko zainketa politikak behar dira, eta hauei eman lehentasuna: pertsonalizazioari, hurbileko zainketei eta komunitarioei, eta pertsona ardatz duen arretari.

Eredu ekosistemiko bat behar da, lurraldekakoa, oinarri komunitarioa duena, prozesuaren protagonista diren erabiltzaile, familia zaintzaile eta profesionalek aukera izan dezaten erantzun hobeak eraikitze beharrei aurre egiteko, gero eta handiagoak dira eta. Horretarako, funtsezkoa da desinstituzionalizaziorantz jotzea, zainketak etxean bertan jasotzeko aukera eskainiz eta zaharren egoitzak ingurune gozoagoak bihurtuz, besteak beste.

5. Erronka estrategikoak / Politikak



2023. urtean, 2016-2020 aldirako zehaztutako ildo estrategikoetan lan egiten jarraitu da, Patronatuak plan estrategikoa hurrengo gogoeta egin arte luzatzea onartu ondoren. Gogoeta hori 2022an egitea aurreikusita bazegoen ere, 2023an jorratu da, eta 2024an ere horretan jarraituko da.

Ildo horretan, berritasun modura adieraz dezakegu erakundearen antolaketa estrategia berria zehaztu dela 2023. urtean. Estrategia hori funtsezkoa da gaur egiten ari den gogoeta estrategikorako.

ERRONKA NAGUSIA: arreta eredua garatzen jarraitzea

Matiaren misioarekiko lotura estua du erronka horrek; alegia, pertsonen zahartze prozesuan laguntzea, haien ongizatea hobetzeko eta haien autonomia eta duintasuna sustatuko dituzten ezagutza eta zerbitzu pertsonalizatuak sortzeko. Erronka horren barnean kokatzen ditugu Matia Eredua garatzeko jarduketak, gizarte eta osasun zentroetan, etxeko esparruan nahiz gizartean jorratzen ditugun zerbitzu, ekintza eta programen bidez.

• GIZARTE ETA OSASUN ZENTROETAN

Matia Institutuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzak hitzarmenari esker sortu zen Etxean Ondo ikerketaren (2011-2014) bidez, laguntza eredu tradizionaletik pertsonarengan ardaztutako arreta eredurako bilakaera gauzatzeko oinarriak finkatu ditu Matiak gizarte arloan; hau da, pertsonengan, beraien interesetan, duintasunean eta pertsonalizazioan oinarrituko den arreta eredu baterantz jotzeko oinarriak.

Urteotan, ikerketa horretan sortu diren ikaskuntzen eta ezagutzaren ondorioz identifikatutako hobekuntza jarduerak jasotzen dituen bide orria ezartzen aritu dira Matiaren zentro soziosanitarioak.

Gidalerrotzat identifikatu diren funtsezko bost elementuren inguruan ardazu da aldaketa, oraindik ere abian dagoena eta egongo dena.

Hona hemen bost elementu horiek:

1. Pertsonarengan ardaztutako arreta ereduan (aurrerantzean, PAE) **trebatzeko eta eredia ezartzen laguntzeko lana**, eredu berri horrek eskatzen duen portaera eta kultura aldaketa sustatzeko asmoz.
2. **Langile gutxiago txandatzeari** laguntza behar duten pertsonekin, elkar ezagutzaren bidez, pertsonalizazioa areagotzeko eta arreta duintzeko.
3. **Pertsonaren ohiturak, lehentasunak eta aurreikuspenak identifikatzeko eta baloratzeko jarduna sendotzea**, informazio hori guztia Arreta eta Bizitza Planean txertatuko dela bermatzeko.
4. **Erreferentziako profesionalaren figura jorratzea**, konfiantzazko pertsona ez ezik, eskaintzen diren zaintzen eta arretaren bermatzailea ere izan dadin.
5. **Ingurunea aldatzea**, giroak dibertsifikatzeko eta etxean bezala bizitzeko aukera eskainiko duten guneak sortzeko.

• GIZARTE ARLOA

Aipaturiko bost arloetan arreta eredia hobetzen jarraitzeko unea heldu zaigu (zentrotik zentrora aurrerapausoak handiagoak edo txikiagoak izan diren arren, eta Petra Lekuona zentro berria ere jardun horretan sarturik), zuzeneko arretan kultura aldaketa areagotuz.

- Horretarako, egoitza arretarako baliabide gehiago ezarri dira 2016ko hasieratik aurrera.
- Egoitza zentro bakoitzean, zuzeneko arretako taldeen lanean metodologia ia esperimentalak erabiltzen hasi gara. Helburua: arretako jardunbiderik egokienak zehaztea, tratu onaren eta pertsonarengan ardaztutako arretaren esparruan.
- Institutuarekin lankidetzan, ikerketako/jarduneko proiektuak abiarazteko oinarriak ezarri dira, arreta eredia aldatzearen onurak agerian jartzeko asmoarekin.
- Egindako proiektu guztiak eta sortutako ebidentzia guztiak administrazioarekin partekatuko dira, herri erakundeek erabili ahal izateko.

• OSASUN ARLOA

Pertsonarengan ardaztutako arretaren printzipioak txertatzeko bidean, ibilbide laburragoa egin da osasun arloan, gizarte arloan baino.

Horregatik, datozen urteetan eredu hori ezartzeko konpromiso argiagoa eskatzen dugu errehabilitazio anbulatorioan nahiz ospitaleetan, berrikitan OMEk pazientearengan oinarritutako arretari buruz adierazitakoaren ildotik.

○ **Pazientearen segurtasuna**

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Pazientearen Segurtasunari dagokionez 2021-2030 aldirako ezarritako osasun politiken ildotik, aurrera egingo dugu gure arreta ereduan pazientearen segurtasunari buruzko gidalerroak txertatzeko bidean. Izan ere, osasun arretaren prozesuan pazienteari min saihegarririk ez egitea azpimarratzen du politika horrek.

Esparru horretan, nabarmentzekoa da zer-nolako garrantzia duten arreta farmazeutikoak eta Ospitaleko Farmazia Zerbitzuak, artatzen ditugun pertsonen ongizatea hobetzeari dagokionez.

Horregatik, medikazio hutsak murrizteko proiektu berritzailea lantzen dihardugu, medikamentua emateko prozesu osoan trazabilitatea eta segurtasuna bermatuko dituen.

Gure iritzian, beste zentro soziosanitario batzuetarako ere baliagarriak izango dira proiektuaren bidez eskuratuko ditugun esperientzia eta ezagutza, beraien arretaren emaitzak hobetzeko aukera emango diete eta.

Amaitzeko, garrantzitsua da hurrengo etapan bi helburu azpimarratzea: Ospitaleko eta gainerako zentroetako segurtasun plana garatzea eta hedatzea.

○ **Arreta psikogeriatrikoa**

Narriadura kognitiboa eta orotariko dementziak dira zahartzen ari zaigun gizartearen erronkarik kezagarrienetakoak. Batez ere portaera nahasmenduak sortzen direnean eta familiaren erantzun gaitasuna gainditzen dutenean.

Halakoetan, askotan, familiak amore eman behar izaten du, eta eramateko zaila den porrot sentazioarekin bukatu.

Beste alde batetik, adierazle positibo batzuk biltzen hasiak gara pertsonarengan ardaztutako arreta eredua erabiltzen duten egoitza unitateetan bizi diren eta profil psikogeriatrikoa duten pertsonen ongizateari lotuta.

Horregatik, zaintzen ibilbide osoan profil horien berrikuntza areagotzea da gure lehentasunetako bat.

Gure egungo errealitatean, laguntza baliabideetako unitate psikogeriatriko bakoitza bere kontura eta bakarka ari da eredua berritzeko lanean. Horrexegatik, etapa berri honetan arreta psikogeriatrikoa denok batera lantzea proposatzen dugu, ikuspegi integral batetik egiteko aurrera.

Horrela, diziplinarteko ezagutza garatu eta zerbitzu eta baliabideetan (ospitaleetan, kanpo kontsultetan, egoitzetako psikologia integraleko unitateetan, eguneko zentroetan eta etxez etxeko arreta zerbitzuetan) sortutako ezagutza bilduko duen prozesua sortu nahi dugu.

Arretako ibilbide integralak diseinatzea eta eskaintzea da helburua, nazioarteko joerekin bat etorriko direnak eta pertsonen eta familien beharrazinei erantzungo dietenak.

○ Errehabilitazio anbulatorioa

Errehabilitazio anbulatorioko pazienteen osasunean eta ongizatean lortutako emaitzak askotarikoak izan dira. Ez dugu inolako ebidentziarik teknika edo teknologia jakin batzuk patologien eta egoeren arabera beste batzuk baino hobeak diren jakiteko.

Pazienteen gogobetetasun indizean oinarritu izan dugu, tradizioz, gure ebaluazioa.

Badakigu termometro garrantzitsua dela eta gure jarduera ebaluatzeko erabiltzen jarraitu behar dugula.

Alabaina, hobekuntza terapeutikoan aurrera egitea da hurrengo etapan finkatu nahi dugun helburua, eta artatzen diren patologietarako tratamendurik eta teknikarik onenak zehazten lagunduko diguten ebidentziak bildu beharko ditugu horretarako.

● ETXEKO ESPARRUA

Matia Institutuaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzak hitzarmenari esker sortu zen Etxean Ondo ikerketaren (2011-2014) bidez, pixkanaka etxean ere arreta zerbitzu integratua ezartzeko oinarriak finkatu ditu Matiak, gizarte, osasun eta hurbiltasun zerbitzuak koordinatuta. Zerbitzu hori ere pertsonengan, beraien interesetan, duintasunean eta pertsonalizazioan oinarrituta dago.

Izan ere, pertsonak behin baino gehiagotan adierazi dute etxean bizitzen jarraitzea nahiago dutela, laguntza behar dutenean ere bai. Gogo horri erantzutea da Matia nahi.

○ Matia Etxean

Etxean Ondo proiektuaren ikerketa fasean nahiz jardunean eskuratutako ezagutzari esker —500 etxebizitzatan aritu gara eta 20.000 zerbitzu ordu baino gehiago eman ditugu proiektu pilotuan—, Matia Etxean etxeko arreta zerbitzu integrala abiarazteko oinarri kontzeptual eta esperientzial nahikoa dugula esan dezakegu, ziurtasun osoz.

Ikerketaldiak frogatu zigun planteamendu eraginkorra dela, eta kostutan efizientea sistema soziosanitarioarentzat.

Fase esperimentaletik harago, eskala handiago batera jotzeko unea heldu delakoan gaude, aurrera egiten jarraitzeko.

Laguntza zerbitzu integrala eskaini nahi dugu, pertsonengan ardaztua, beraien beharrian eta lehentasunekin bat eta laneko bost alderdi hauen baturan eta koordinazioan oinarrituta:

1. **Kasuaren kudeaketa:** gure iritzian, kasuaren kudeaketa da arretaren osotasuna eta jarraitutasuna bermatzeko metodologiarik egokiena. Oinarria hau da: pertsonak behar litzakeen gizarteko, osasuneko eta hurbileko baliabide guztiek koordinatuta aritu behar dutela.

Horretarako, arreta plan integral eta banakakoa egiten da: taldeko diziplina anitzeko profesionalek pertsonaren egoeraren hasierako balorazioa egiten dute, pertsonaren beraren eta familiaren parte hartzearekin, eta pertsonaren ohituretan eta lehentasunetan oinarritutako helburu bateratu batzuk zehazten dituzte. Matiak duen kudeaketa tresna informatikoak funtsezko laguntza eskaintzen du kasuen jarraipena, koordinazioa eta kudeaketa egiteko.

2. **Laguntza pertsonala:** gure ustez ezinbestekoa da erreferentziako profesional bat izendatzea, etxeko ingurunean konplexutasunik handiena duten eta *expertise* handiagoa eskatzen duten zaintzak ikuskatu eta jorratzeko eta, azken buruan, banakako arreta planean zehaztutako helburuak lortzeko. Profesional hori ohiko zaintzaileentzako (profesional nahiz senitartekoentzako) aldian aldiko errefortzua izango da, erabiltzaileei eta beraien familiei proposamen lehiakorra eta jasangarria eskaintzeko. Horrexegatik, hain zuzen, laguntzaile pertsonalaren figura erreferentziako profesionala izatea proposatzen dugu.

3. **Zaintzaileak:** laguntza premia handia denean, etengabeko laguntza izango da zaintzaren oinarria. Era askotan antola daitekeen arren, errealitateak erakutsi digu etxeko langileengana jo ohi dela zaintzen ordu gehienak betetzeko. Izan ere, etxeko zerbitzu publikoek arintasun eta malgutasun handiagoa lortzeko eta prezio lehiakorragoak izateko erronkari egin behar diote aurre.

Horrenbestez, Matia Etxean zerbitzuak, beste eragile batzuekin lankidetzan, kalitateko zaintzaileen zerbitzua eratu nahi du, etxeko laguntzen eta zaintzen zati handi bat bete dezan. Zaintzaileek etengabeko gainbegiratzea eta prestakuntza izango dute, batez ere kasuaren kudeatzailearen eskutik, Matia Etxean proiektuan integratuta egongo direlako.

4. **Etkez etxeko arreta geriatrikoa:** arlo publikoak betetzen ez dituen gizarte eskarien alorrean, terapeuta okupazionalen ethez etxeko geriatriako kontsultak, ethez etxeko errehabilitazioa eta etxebizitza egokitzeko aholkularitza lana jorratu nahi ditu Matiak.

Ildo beretik, aurrez aurrekoak ez diren kontsultak ahalbidetu nahi ditu, familiek nahiz profesionalek izan ditzaketen zalantzak argitzeko, tratamendua doitzeko eta abarrekoak egiteko. Horri esker, adinekoak kontsulta espezializaturako joan-etorriak egin beharra saihestuko litzateke.

Azkenik, funtsezko aliatuekin estimulazio kognitiborako programak sustatzea, urte batzuetatik hona lantzen ditugun Orekako eta Ibiliko programak sendotzea eta Gipuzkoako herritarren hauskortasuna prebenitzeko edo suspertzeko programak jorratzea.

Matia Etxean zerbitzuak pertsona bakoitzari egokitutako hurbileko beste zerbitzu batzuk ere hartzen ditu, hala nola ethez etxeko ile apainketa, podologia, liburutegia, farmazia eta beste, kasuaren kudeaketa integraletik bideratuta betiere.

• KOMUNITATE ESPARRUA

Matiaren misioak muga instituzionalak eta etxeetako mugak gainditzen ditu, eta gizarte osora zabaltzen da, gizarte sare osoaren sentsibilizazioa eta partaidetza sustatzen duten programak eta proiektua ere jorratzen baititu.

Zahartzeari heldu nahi badiogu, XXI. mendeari begiratu behar diogu eta adinekoek ongizate estatuari eusteko eta eskubide osoko herritar gisa duten eginkizun garrantzitsua aitortu behar dugu. Zahartzaroaren inguruko kontzientzia soziala sustatzeko apustua egiten du Matiak.

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen eta beraien senitartekoek beste pertsona batzuekin harremana izatea bultzatzen dugu: boluntariora sareekin, auzokideen elkarteekin edota, oro har, beraien ongizatea hobetuko duten eta bizi proiektuari eusteko aukera emango dieten orotariko ekimen guztiekin.

Ezinbestekoak dira gizarteko partaidetza, zahartzaroaren inguruko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa, bai eta laguntzaren eta orientazioaren bidez eskuratu dugun ezagutza gizarte osora zabaltzea ere.

Azken buruan, guzti-guztiokin lagunkoiagoa eta solidarioagoa izango den gizartea sustatu nahi dugu.

○ MatiaZaleak

Matiak sustaturiko gizarte partaidetzarako mugimendua da MatiaZaleak, eta Fundazioaren balioak gizartera zabaltzea du helburu.

Gipuzkoako gizartearekiko konpromiso tinkoarekin sortu zen, adinekoek eta desgaitasuna duten pertsonen bete gabe dituzten premiei eta Matiaren sareko elkarte eta erakundeek dituztenei erantzuteko.

Matiaren egoitzetan bizi diren pertsonen, adinekoen ongizatearen alde lan egiten duten elkarrekin eta zahartze prozesuaren alorrean ikertzeko proiektuei erreparatzen die nagusiki.

Sistemaren bidez estaltzeko aukerarik ez dutenean, beraien ametsak betetzen eta esparru horietan antzemandako beharrak eta gabeziak estaltzen ahalegintzen da MatiaZaleak, Gipuzkoako gizartearekin batera.

Programa abian jartzeko funtsezkoak izango dira (batez ere lehen urteetan) barne komunikazioko plana, kanpoko komunikazioa eta bazkideak banaka nahiz erakunde gisa erakartzeko plana, betiere gardentasun osoa ardatz eta dagoeneko planifikatuta dauden ekimenei jarraitutasuna emateko bidean.

○ **Matia Orienta**

Matia Orientaren helburua hau da: zahartzen diren pertsonen eta beraien senitartekoei, sektoreko profesionalei eta Matia Fundazioko profesionalei zahartzearen eta desgaitasunaren alorreko iraupen luzeko zaintza prozesuei buruzko informazioa eta orientazioa eskaintzea, zerbitzuetan, baliabideetan eta ibilbideetan erantzun arina eta integrala emateko asmoz.

Gaur egun mendekotasunaren arretaren alorrean dauden zerbitzu, zentro, jarduera eta laguntzen inguruko zalantzak dituzten pertsonen doako informazioa eskaintzeko erreferentzia sendoa izan nahi dugu.

Beti ere zaintzen jarraitutasuna bermatzea helburu, eta bertara jotzen dutenen lehentasunak eta premiak aintzat hartuta.

Ekintza hauek hezurmamitzen dute datorren aldirako lan estrategia:

- Barneko zabalkundea, gure zentro eta zerbitzuetako zaintzen koordinazioa eta jarraitutasuna hobetzeko. Hala, Matiaren zerbitzu sarearen baitan, berezko izaera duen zerbitzu gisa finkatu nahi dugu.
- Kanpoko zabalkundea, alde batetik zerbitzua areago ezagutzera emateko eta, beste alde batetik, familiei, erabiltzaileei eta sektoreko profesionalei aholkularitza emanaz ebatzi diren kontsulten eta kasuen kopurua handitzeko.

○ **Matia eta lagunkoitasun mugimendua**

Adinekoekiko lagunkoiak izango diren hiri eta komunitateen proiektua Osasunaren Mundu Erakundearen esparruan jarri zen abian 2005ean, mundu

osoan azaleratzen ari ziren bi joera aintzat hartuta: biztanleriaren zahartzea eta urbanizazio prozesua.

Hauxe da proiektuaren helburua: zahartzen diren pertsonen bizitza errazteko inguruneak sortzea eta, aldi berean, adinekoak protagonista diren herritarren partaidetzako mugimendua sustatzea.

Zahartze aktiboaren paradigmaren azpian dagoen teoriarik oinarritzen da, eta tokian-tokian gauzatzea da asmoa.

«Zahartze aktiboa sustatuko duen hiri eremu integratzailea eta irisgarria da adinekoentzako ingurune lagunkoia» (OME, 2007).

Matia Institutua erakunde aitzindaria da Estatuan, mugimendu horretan parte hartzeari dagokionez. 2009an «Donostia, adinekoekiko hiri lagunkoia» proiekturako (Donostia Estatuko lehen hiri izan zen mugimendu horri atxikitzen) diagnostikoan parte hartu zuenetik aritzen da programarekin bat eta, 2012az geroztik, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak bultzatutako «Euskadi Lagunkoia» proiektua bultzatzen, diseinatzen, garatzen eta koordinatzen du.

Ekimen hori mundu osorako erreferentzia bihurtu da, dagoeneko 30 udalerri baino gehiago atxiki baitzaizkio eta 200 eragile baino gehiago aritzen baitira elkarrekin lanean, lagunkotasunaren alde.

Euskadi Lagunkoia proiektuaren lan planteamenduak Euskadiko herri, inguru eta hiri guztietan bultzatu nahi du mugimendua.

Udalerri txikienei ekimenean sartzen laguntzen die, eta udalerriak, erakunde pribatu, publiko eta sozialak eta pertsonak bilduko dituen sarea sustatzea du helburu.

Udalekin, elkarteekin, enpresekin eta herritarrekin sarean lan eginez, helburu komun baten alde: bizitza eta elkarrekin bizitza erraztuko duten bizi inguruneak sortzea.

Lagunkotasun programan, adinekoak dira eguneroko bizitzan islatuko den ongizatea sortzeko prozesuaren protagonistak. Izan ere, era arrazionalagoan berreskuratu nahi dira espazio publikoak, herritarren arteko harremanak, zaintzen transferentziak eta, orokorrean, udalerrietako eguneroko bizitza gizatiarragoa eta guztiontzako atseginagoa egiten duten gauza txiki horiek guztiak.

Nazioartean harrera ona izan duten dokumentuak ere landu dira proiektuaren esparruan (metodologiari, prestakuntzari eta sentsibilizazioari lotutakoak); hain zuzen, erabiltzeko interesa adierazi duten erakundeetako batzuek ingelesera ere itzuli dituzte.

Adinekoen ahalduntzerako tresnak abiarazteko eta beraiei ingurunean bizi kalitatea hobetzeko proposamenak lantzeko ikerketan, diseinuan eta jardunean punta-puntako erakunde gisa agertzen da Matia Institutua.

Hona hemen Matia Institutuaren datozen urteetarako helburuak lagunkotasunaren alorrean:

- Lagunkotasunaren inguruko adituen nazioarteko sareetan parte hartzea eta alor horretan ari diren sare eta proiektuetan aritzea, hala nola Aldaketa Demografikoaren aldeko Europako Hitzarmenean (AFE-InnOVnET), *European Innovation partnership on Active and Healthy Ageing* (Elp-AHA) erakundearen «*Action Group d4 Innovation for age friendly buildings, cities and environments*» taldean. Ildo horretan bertan, Europako Batzordearen 2016ko Reference Sites deialdirako aurkeztea gure esperientzia, jardunbide egokitzat. Helburua, betiere, ezagutza, metodologia eta jardunbide berriak ikasten eta barneratzen jarraitzea da.
- Estatuko erreferentzia izatea eta Estatuko beste hiri eta lurralde batzuetara eramatea ekimena. Bestelako ezaugarriak dituzten tokietan abian jarriz gure esperientzia handitzea, proiektuaren garapenean ikasten jarraitzeko.
- Zeharkako eragile publiko, pribatu eta sozialekin sarean lan egitea, programa are gehiago indartzeko eta egonkortzeko, eta ikuspegi osagarriak eskuratzeko.
- Estatuko erreferentzia izatea eta Estatuko beste hiri eta lurralde batzuetara eramatea ekimena. Bestelako ezaugarriak dituzten tokietan abian jarriz gure esperientzia handitzea, proiektuaren garapenean ikasten jarraitzeko.
- Alor horretako jardunbide egokiak eta dokumentazio berria sortzea, eta narriadura kognitibo arina duten pertsonak lagunkotasunaren ekimenean sartzea, dementzia duten pertsonentzako ingurune lagunkoiak lortzeko bidean.
- Inguruneak egokitzeko mugimendua sustatzea, adinekoen eta herritar guztien bizi kalitatea hobetzeko asmoz, eta herritarren erantzukidetasunaren kultura eta adinekoen ahalduntzea bultzatzea.
- Ikasitakoa beste eragile batzuekin partekatzea, eta urteotan eskuratu ditugun ezagutzak eta ikaskuntzak zabaltzea.

1. LAGUNTZA ERRONKA: Arreta ereduaren garapenari lotutako ebidentziak sortzea, I+G proiektuen bidez

Honako hauek bilatzen dituzte erroka honetako ekintza planek: proiektuak partaidetzaz (ikertzaile eta laguntzako profesionalek parte hartuta) identifikatzea; ezagutza biltzea eta sortzea; pertsonarengan ardaztutako arreta eredu ezartzearen ondoriozko aldaketen eta berrikuntzen inpaktua ebaluatzea, ebidentziak sortzeko asmoz; eta, azkenik, lortutako emaitzak eta ezagutzak barnera begira eta gizarte osora zabaltzea.

2011. urteaz geroztik, Matia bere Arreta Eredua hobetzeko ibilbide batean sartuta dago, bere zentroen ezaugarriak doitzeko helburuarekin: alderdi fisiko-arkitektonikoak, profesionalen antolaketa eta praktikak, pertsonen laguntza premiak dituztenean aukeratzen duten arreta eskaintzen duten inguruneak.

Ilido horretan, epealdi horretan Matia Institutuak egindako azterlanek berretsi egin dute ezarritako aldakuntzek eragin positiboa dutela gure egoitzetan bizi diren pertsonen ongizateari lotutako zenbait alderditan eta profesionalen jardunbidean, eta senitartekoen gogobetetasun maila ere handitu egiten dela.

Lanek nabarmendu egin dute profesionalen jarrerak eta jardunbideak oso garrantzitsuak direla kalitateko arreta pertsonalizatuta ematea lortzeko.

Ondorioz, pertsonarengan ardaztutako Matia-aren eredua ezartzeko bideak bat etorri behar du Fundazioaren kultura aldaketarekin, eta arreta berezia egin behar die zentroetako profesionalak trebatzeko eta laguntzeko ekintzei, bai eta ekintza horien ondorioei lotutako ebidentziei ere, artatzen ditugun pertsonen lehentasunak errespetatutako dituen arretaren kultura sortzen jarraitzeko.

- **Lan ardatzak**

Ikerketaren helburuak eta proiektuak partaidetzaz identifikatzea.

Nazioartean kalitateko arretaren ebaluazioari eta esku hartzeari buruzko ikerketa ildoak garatzen diren heinean, nabarmendu egiten da nazioko nahiz nazioarteko instituzioen arteko sareak sortu behar direla, kalitate estandar nahikoei eusteko. Eta, horrekin batera, eta barnera begira, kultura eraldatzeko prozesuarekin bat, arretako eta ikerketako lankidetzaren sareak sustatu behar dira, ebidentzia zientifikoak eta esperientzia profesionalak trukatzeko eta, horri esker, ikertutako eta aplikatutako esparruari egokitutako ikerketa proposamen berriak sortzeko.

Hala, arreta berezia egingo zaie tratu onari lotutako determinatzaileei eta konpetentziei, eta batez ere beren eskubideak defendatzeko baliabide gutxien dituzten pertsonen dagokienez, egoera ahulenean daudelako.

- **Erakunde barnean ezagutza barneratzeko eta sortzeko jarduna sustatzea.**

Jardunbide profesional handiko profesional trebatu eta inplikatuak izateko premiari erantzutea da lan ardatz horren oinarrietako bat. Bestea, berriz, arreta emateko eta antolatzeke era berrien ondorioz sortzen den ezagutza garatzea eta agerian jartzea.

- **Proiektuak garatzeko talde mistoak sustatzea.**

Aurreko aldian heldu genion bide horri, baina oraindik badugu zereginik laguntza alorreko eta ikerketa alorreko helburuak bateratzeko bidean. Horregatik eusten diogu lan ardatz horri, talde guztiak (teknikoak, prozesukoak eta hobekuntzara zuzendutakoak) mistoak izan daitezen eta bi errealitateak partekatzeke eta batzuen eta

besteen beharrianak, aurreikuspenak eta ideiak ezagutuz, lanak eta emaitzak hobetzeko.

Zuzeneko arretan ari diren taldeen emaitza maximizatzeko asmoz, garrantzitsua da Matia Institutuko ikertzaileak eta adituak zuzeneko arretako taldeetan sartzea, ideiak sortzen laguntzeko, laguntza metodologikoa emateko eta sektoreko ezagutza eguneratua eta aurrerakuntzak hornitzeko. Ardatz hori indartze aldera, gaur egun laguntzako lanak egiten dituzten diziplina arlo guztietako kideak Institutuan sartzeko aukera aztertuko da, ezagutza sortzen laguntzeko.

- **Arreta eredua ezartzeko eta ebaluatzeko baliabideak sortzea.**

Arreta pertsonalizatuko ereduaren esparru kontzeptualera egokitutako baliabide teknikoen eta prestakuntzako baliagarritasuna jarri du agerian Matia Fundazioak eta Matia Institutuak egin duten ibilbideak.

Illo horretan, ikus-entzunezko materialak, prestakuntzarako materialak eta ebaluazio tresnak egin ziren aurreko aldian, eta harrera bikaina jaso zuten Estatuan. Dagoeneko jorratzen hasia den bide horrek jarraitutasuna izango du eta, besteak beste, pertsonarengan ardaztutako arretaren ezarpen maila ebaluatzeko eredua eta tratua onartu eta sustatzeko prestakuntza materialak jorratzea izango da hurrengo urratsa.

Emaitzak erakunde barnean nahiz kanpoan zabaldu behar dira, sortutako ezagutzaren eta berrikuntzaren inpaktua ahalik eta handiena izan dadin. Horretarako bideak dira, besteak beste:

- Matiako profesionalentzako saioak.
- Sektoreko profesionalen zuzendutako Matia Foroa.
- Argitalpenak, txostenak eta komunikazioak zahartzearen eta desgaitasunaren sektoreko kanpo foroetan.

Ikerketako edo laguntzako jardura eta proiektu guztiak abian jartzen diren unetik bertatik planifikatuko da zabalkuntza lana, lantalde bakoitzerako helburu zehatzak ezarrita.

2. LAGUNTZA ERRONKA: Arreta ereduaren jasagarritasuna sustatzea

Matia Eredua (eta batez ere haren alderdi ekonomikoa eta soziala) jasagarria izango dela ziurtatu nahi badugu, ezinbestekoa izango da gizartean dugun inpaktua handituko duten zerbitzu berriak sortzea, zentroen okupazio maila eta zerbitzuen jarduna optimizatzea, beharrian konplexuak dituzten pertsonen arretan espezializatzen joatea eta gastuak eta sarrerak egokitzea.

Matia irabazi asmorik gabeko eta interes orokorreko fundazio pribatua da eta jasagarritasuna du helburu.

Jasangarritasuna globaltasunean eta zeharka ulertzen dugu: egungo beharrianak ziurtatzea baina etorkizunekoak kolokan jarri gabe, eta gizartea eraikitzen laguntzea eta bera osatzen duten kide guzti-guztien ondasun erkideari ekarpena egitea, ondasun hori banaezina baita eta soilik guztion lankidetzaren bidez eskuratu, handitu eta babestu ahal baitugu.

Halatan, Matiaren misioaren inpaktua maximizatu nahi dugu, eskura ditugun baliabideak eta ondarea erabiliz.

Horrenbestez, gure inpaktu sozialak iraun dezan, arreta ereduan oinarritutako jarduera jorratzeaz gain, dimentsio anitzeko jasangarritasuna landu beharko dugu, gurekin harremana duten eragileak eta elementuak ere jasangarriak izanik.

Ohikoa da (eta areago gaur egungo egoera ekonomiko konplexuan), jasangarritasunaz aritzen garenean diru kontuak bururatzea. Alabaina, gure konpromisoa harago doa: geure jardunaren alderdi guztietan izan behar dugu jasangarriak, Fundazioaren inpaktua iraunkorra dela ziurtatzeko.

- **Lan ardatzak**

1. **Zentroen okupazioa eta zerbitzuen jarduera optimizatzea**, ahalik eta pertsona gehienengoz ongizatea hobetzen laguntzeko.
2. Premia aurreratu eta konplexuak dituzten pertsonen **arretan espezializatzea**.
3. Gure misioaren inpaktua areagotzea ahalbidetuko diguten **zerbitzu berriak sustatzea**: zerbitzu iraunkorrak, finantzaketa publikoaz harago bestelako finantzaketa ere izango dutenak.
4. **Gastuak diru sarreretara egokitzea**.

3. LAGUNTZA ERRONKA: Erakundea egokitzea arreta eredua garatzeko

Hirugarren erronka horrek kudeaketa eredua eta pertsonen arteko harremanen eredua eraldatu nahi ditu, Matiaren arretarako ereduak ahalik eta gehien egin dezan aurrera. Laguntza eredu berritzailea, pertsonengan eta beraien gustu eta interesetan ardaztua. Pertsonak kudeatzeko prozesuak eta kudeaketa sistemak daude erronka horren aurrealdean, horietako bakoitzaren ekintza planak tarteko. Horien artean nabarmentzekoak dira balio bidezko kudeaketa eta Matia osatzen duten erakunde guztien kudeaketa eredua integratzea.

Matia Eredua garatzekotan, nahitaezkoa izango da profesional trebatuak, eta proiektuarekin motibatuak eta inplikatuak izatea.

Era berean, gure misioari erantzungo dioten eta hura indartuko duten balioetan oinarritu beharko dugu guztion arteko eta kanpoko eragileekiko harremana.

- **Lan ardatzak**

- **Balio bidezko kudeaketan oinarritutako kultura aldaketan aurrerapausoak ematea.**

Erakundean kultura aldaketa gauzatzea da asmoa, guztion artean zehaztu ditugun balioetan oinarrituta egon dadin. Gure misioaren eta ikuspegiaren ondoriozko balioetan oinarrituko den kudeaketa eredua ezarri nahi dugu.

Horretarako, funtsezkoa da balioak erakunde oso-osoan zabaltzea, bertako pertsona guztiek ezagutu eta onartu ditzaten, eta haiekin bat egin dezaten.

Balio horiek zabaltzea da guztion partaidetza bilduko duen kultura libreago baterako aldaketa gauzatzeko bermea.

- **Erakundeetan kudeaketa eredua partekatu eta jorratzen jarraitzea.**

Matia osatzen dugun erakunde guztietan kudeaketa eredua txertatzera bideratutako ekintza guztiak biltzen ditu lan ardatz horrek. Horretarako, jorratzen ditugun jardura guztiak jasotzen dituen prozesuen mapa bakarra erabiliko dugu, lau erakundeetako pertsonen osatutako lantaldeekin.

Bateratze estrategia horrek plangintzako, garapeneko eta ebaluazioko jardueretara zuzendutako baliabide guztiak optimizatzen ditu, eta homogeneizatu egiten ditu profesionalen jardunak eta harremanak erakundeekin, hornitzaileekin, familiekin eta gainerako interes taldeekin.

Erakunde guztietako jardunbide egokien ezarpena eta beharrianen integrazioa bermatu beharko du integrazio prozesu horrek.

Beste alde batetik, eta baliorik handiena dakarren kontuetan zentratuko garelako bermatzeko, kudeaketa tresnak (auditoretzak, gogobetetzeari buruzko azterketak, aginte taulak...) pertsonarengan ardaztutako Matia arreta ereduak eskatzen dituen aldaketetara eta aurrerapenetara egokitze helburua finkatu du erakundeak.

4. LAGUNTZA ERRONKA: Kanpo lankidetzaren sustatzea, arreta eredua garatzen laguntzeko

Helburuak partekatzen ditugun beste eragile batzuekin lankidetzan aritzearen aldeko apustua egiten dugu, bakoitzak bere helburuak izan ditzan.

«Batera indartsuagoak gara» izan liteke erronka horren lema. Gure ustez, gure misioaren inpaktua biderkatzea ekarriko dute beste eragile batzuekiko sareko lanak, zeharkako lankidetzak eta osagarritasunak.

Helburuak partekatzen ditugun beste eragile batzuekin lankidetzan aritzearen aldeko apustua egiten dugu, bakoitzak bere helburuak izan ditzan.

«Batera indartsuagoak gara» izan liteke erronka horren lema. Gure ustez, gure misioaren inpaktua biderkatzea ekarriko dute beste eragile batzuekiko sareko lanak, zeharkako lankidetzak eta osagarritasunak.

Aurreko erronketan zehazten den bezala, uste dugu lankidetzak horrek jasangarria eta gure balioetan oinarritua izan behar duela: konfiantza, komunikazioa, jarrera positiboa eta besteen aintzatespena.

- **Lan ardatzak**

- **Alderdi estrategikoetan lankide izango ditugun kanpoko eragile kritikoek multzoa identifikatzea, guztion artean geure inpaktua handitzeko.**

Horretarako, lanerako esparru bateratua zehaztea proposatzen dugu, balio eta printzipio horietan oinarritutako harremana jasoko duen hitzarmen baten bidez. Gure iritzian, hitzarmen horiek Interneten argitaratu eta etengabe eguneratu behar dira, mundu guztiak eskura izan ditzan.

- **Irabazle/irabazle estrategian oinarritutako proiektu erkideak zehaztea.**

Lankidetzak esparrua zehaztu eta elkarlana jorratzeko unean, garrantzitsua da identifikatzea bi aldeentzako helburuak bilduko dituen proiektua, zer baliabide erabiliko diren, nor diren arduradunak eta zer epealdi egongo den helburuak gauzatzeko.

- **Lankidetzak hitzarmenen ebaluazioa eta jarraipena.**

Azkenik, adi egon behar dugu eta etengabe galdetu behar diogu geure buruari ea proiektuetara bideratzen ditugun baliabideek nahi dugun emaitza lortzen duten, jarraitu ala birplanteatu egin behar diren erabakitzeko edota, hala badagokio, bertan behera uzteko.

6. Mehatxuak eta aukerak

Mehatxu eta aukerarik esanguratsuenen artean, hauek nabarmentzen ditugu:

Jatorria (B = barnekoa, K = kanpoko)	I=Indarra, A=Ahulezia, M=Mehatxua, AU=Aukera?	Deskribapena	Operatiboa / Estrategikoa?	2016-2020 aldiko zein erronka estrategikori erantzuten dio?	Zer ekintza egiten ditugu? (Arriskuaren tratamendua)	Taldea?
K	M	Profil profesional jakin batzuk erakartzeko zailtasuna (mediku eta erizain falta)	Estrategikoa/Operatiboa	4. Jasangarritasuna bermatzea	Medikuak eta erizainak (eta beste profil batzuk) kontratatzeke estrategia	CEMI
B/K	A/M	Jasangarritasuna finkatzea	Estrategikoa/Operatiboa	4. Jasangarritasuna bermatzea	1. Gerozerlanen hitzarmenak negoziatzea 2. Kontratazio eredua eta kontratazio plana berrikustea 3. Eraginkortasun politika maila guztietan 4. Absentismo estrategia 5. Hiru erakunderen integrazioa	CEMI
K	M	KPlaren eta Euriborraren igoerek eragin zuzena dute erakundearen kostuetan	Estrategikoa	4. Jasangarritasuna bermatzea	Hornitzaileekin negoziatzea, administrazioari informazioa eskatzea	Ekonomiko-finantzarioa
K	M	Okupazio txikia eguneko zentroan. Eguneko zentroko arreta zerbitzuaren nortasuna galtzea	Estrategikoa	4. Jasangarritasuna bermatzea	Administrazioarekin lankidetzan aritzea Babesarea proiektuan	Eguneko zentroko arreta
K	M	Aurrera egitea galarazten digun laneko eta jarduneko legeria	Estrategikoa	1. Aurrera egitea pertsonarengan ardaztutako arretan 3. Erakundea egokitzea	Identifikatzea eta batzordearekin, taldeekin eta instituzioekin lan egitea	CEMI
B	A	Protokoloak, Sistemak eta Politikak	Estrategikoa/Operatiboa	1. Aurrera egitea pertsonarengan ardaztutako arretan 3. Erakundea egokitzea	Berrikuspina, aurrera egiten lagun dezaten	CEMI
B	A	Desgaitasuna duten pertsonentzako arreta eredua diseinatzea: diseinu zaharkitua berrikusteko eta artatutako pertsonen profilera egokitzeko beharra	Estrategikoa/Operatiboa	1. Aurrera egitea pertsonarengan ardaztutako arretan	Dibertsitate funtzionala duten pertsonen arreta emateko eredu berri bat diseinatzea	Dibertsitate funtzionala eta gaixotasun mentaleko arazoak dituzten pertsonentzako arreta
B	A	Behar bezala prestatu gabeko profesionalak (behar berrien arabera)	Estrategikoa	2. Ezagutza eta ebidentziak sortzea 3. Erakundea egokitzea	1. Prestakuntza beharren diagnostikoa egitea aldizka eta hainbat metodologia erabilita 2. Laguntzak sustatzea	CEMI

					3. Prestakuntzaren eraginkortasuna ebaluatzeko hainbat metodo aplikatzea, prestakuntza ekintzetara egokituta 4. Ibilbideak definitzea, prestakuntza metodologia berriak ezartzea	
B	A	Datuak neurtzea eta aztertzea: benetan esanguratsua dena neurtzen ez duten adierazleak definitzea, adierazleak eskuz elikatzea, datuen jarraipena eta analisisa ez egitea	Estrategikoa/Operatiboa	3. Erakundea egokitzea 4. Jasangarritasuna bermatzea	Talde arduradunek urtero adierazleen inguruan hausnartzea, informatika tresnak doitztea, adierazleak eskuz elikatzea ezabatzea (pilotua). Eraldaketa digitalerako aholkularitza proiektua.	CEMI
B	A	Ebaluazioa: arretaren kudeaketari eta kalitateari dagokien ez benetan esanguratsua dena identifikatzea ahalbidetuko digun tresnari ez izatea, sistemaren betekizun guztiak kontuan ez hartzea	Estrategikoa/Operatiboa	3. Erakundea egokitzea 4. Jasangarritasuna bermatzea 1. Aurrera egitea pertsonarengan ardaztutako arretan 2. Ezagutza eta ebidentziak sortzea	Ebaluazio tresna diseinatzea: parte hartzaileagoa (autoebaluazioa), alderdi garrantzitsu/kritikoen azterketa orokorra eta espezifiko erraztuko duena	CEMI
B	A	Prozesuen diseinua eta kudeaketa zaharkitua, ez da arina	Estrategikoa/Operatiboa	3. Erakundea egokitzea 4. Jasangarritasuna bermatzea 1. Aurrera egitea pertsonarengan ardaztutako arretan 2. Ezagutza eta ebidentziak sortzea	Antolamendu ereduaren egorari buruzko hausnarketa	CEMI
B	AU	Proiektu berriak: Usurbil/Lugaritz	Estrategikoa	1. Aurrera egitea pertsonarengan ardaztutako arretan 2. Ezagutza eta ebidentziak sortzea	1. Lan instituzionalak 2. Tokiko komunitatearekiko lana 3. Lantaldea sortzea 4. Adituak kontratatzea	CEMI
B	AU	Etxean Bizi	Estrategikoa	1. Aurrera egitea pertsonarengan ardaztutako arretan 2. Ezagutza eta ebidentziak sortzea	1. Lan instituzionalak 2. Komunitatearekiko lana 3. Talde mistoa (iker./laguntz.) osatzea	CEMI
B	AU	Teknologia berriak erabiltzea barneko eta kanpoko ezagutza kudeatzeko	Estrategikoa	3. Erakundea egokitzea	Matia Eskola ezartzea	Ezagutza kudeatzea
K	AU	Bisitak, ezagutza partekatzea, erreferente izatea beste erakunde batzuentzat	Estrategikoa	2. Ezagutza eta ebidentziak sortzea 5. Beste batzuekin lankidetzan aritzea	1. Bisitak kudeatzea 2. Eredua ezartzeko aliatuak izatea	CEMI

7. ISO arauak, jasangarritasuna eta GJHak

Hauek dira ISO arauak:

- Erreferentzia orokorrak
- Nazioarteko lankidetzaren emaitza
- Berrikuntzarako oinarri sendoa
- Gobernuai, industriari eta kontsumitzaileei beren helburuak lortzen laguntzeko tresnak, Garapen jasangarria eta GJHak barne

Honako hau da garapen jasangarria: bizi kalitate handia, osasuna eta oparotasuna bat etortzea justizia sozialarekin eta Lurrak bizitzari bere dibertsitate osoan eusteko gaitasunarekin. Helburu sozialak, ekonomikoak eta ingurumenaren alorrekoak elkarren mendeak dira eta elkar indartzen dute. Gizarte osoaren itxaropenik zabalenak adierazteko bidetzat har daiteke garapen jasangarria.

ISO arauak ia gai guztiak jorratzen dituzte: hasi konponbide teknikoetatik eta prozesuak eta prozedurak kudeatzeko sistemetaraino.

Ez dago GJHei buruzko berariazko ISO araurik, baina badira GJHein bat datozen arauak. Hala, GJH bakoitzari ekarpen bat egiten dioten arauak identifikatu ditu ISOk (ISO SDG bilaketa tresnaren arabera).

Esan dezakegu Matiak laneko kalitatearen, segurtasunaren eta osasunaren kudeaketarekin duen konpromisoaren barruan (ISO 9001 eta ISO 45001 ziurtagirien bidez) GJH hauek lortzen laguntzen duela:

ISO araua	Arauak honetan laguntzen du	GJH hauek lortzen laguntzen du (www.iso.org)
ISO 9001: Kalitatearen kudeaketa <i>*Zentro guztiak, MatiaZaleak eta Gerozerlan, Zaintzatari eta Matia Enea izan ezik. Goxaran, Ordiziako eguneko zentroa eta Beasaingo etxez etxeko arreta barnean hartuta.</i>	Eraginkortasun handiagoz lan egiten eta zerbitzuaren akatsak murrizten	
ISO 45001: Laneko segurtasuna eta osasuna <i>*Goxara, Zaintzatari, Petra Lekuona eta Matia Enea izan ezik.</i>	Lantokiko istripuak murrizten	




8. Matiaren materialtasun analisia

Materialtasun analisia egiteko, *Global Reporting Initiative* (GRI) estandarretan jasotako «Txostenak egiteko printzipioak» jarraitu ditu Matiak, GRI 101 estandarren arabera (2016ko oinarriak). Hala ere, jakin badakigu estandarrak berrikusi eta eguneratu egin zirela 2021ean (2023ko urtarilaren 1ean jarri ziren indarrean).

Horrek berekin ekarri du jasangarritasun memoria egiteko printzipio hauei jarraitzea: Interes taldeak sartzea, Jasangarritasun testuingurua, Materialtasuna eta Exhaustibotasuna.

Horrela, prozesu horretan etapa hauek aurreikusten dira:



- **Interes talderik garrantzitsuenak**

Matiak interes talde hauek hautatu ditu, 2016-2020 aldirako hausnarketa estrategikoa egin ondoren¹, aintzat hartuta erakundearen jarduerak eta/edo zerbitzuek nabarmen eragiten dieten entitateak edo gizabanakoak, edo erakundearen estrategiak arrakastaz gauzatzeko eta helburuak lortzeko gaitasunari eragingo diotenak.

Aurten, «Lugaritzeko emakume auzokideak» interes taldea gehitu da.

¹ Gaur egun, 2016-2020 aldirako adierazitako ildo estrategikoetan lan egiten jarraitzen dugu, plan estrategikoaren luzapena onartu ondoren, 2024an egingo den hurrengo hausnarketara arte.



Interes taldeak

Erakundearen jarduerak zuzenean edo zeharka eragiten dien barneko eta kanpoko pertsona talde guztiak, beren premia eta itxaropenak dituztenak eta, beraz, erakundearen eragina dutenak

Erabiltzaileak: erakundeak ematen duen edozein zerbitzuren erabiltzaile izan den edonor.
Familiak: erakundeak ematen duen edozein zerbitzuren erabiltzaile baten edozein senitarteko.
Langileak: Matia-erakundearekin lan egiten duen edonor, pertsonengan arduratutako zerbitzuak emateko funtsezko zutabea.
Hornitzaileak: gure jarduerak garatzeko behar ditugun «produktu eta/edo zerbitzuez» hornitzen gaituzten pertsonak eta/edo erakundeak.
Administrazio publikoak: zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko gurekin harreman estua duten erakunde publikoak, bereziki Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila.
Gizartea: Matia zerbitzuak ematen dituen ingurunean parte hartzen duten pertsona edo erakunde guztiak (elkartek, unibertsitateak, irabazi asmorik gabeko erakundeak eta abar).
Sektore soziosanitarioko profesionalak: Matia bere zerbitzuak ematen dituen gizarte eta osasun sektore bereko kide diren pertsona edo erakunde guztiak (zentro soziosanitarioak, erakundeak, ikerketa zentroak eta abar).
Elkartek eta boluntarioak: behar bezala antolatutako erakunde publiko edo pribatuak eta/edo pertsona fisikoak, interes orokorreko beharrak asebetetzera bideratutako jarduerak askatasunez, altruismoz eta eskuzabaltasunez egiten dituztenak; besteei edo, oro har, gizarteari laguntzea da haien helburua.
Patronatua: Fundazioaren gobernu eta ordezkaritza organoa da, fundatzailearen borondatea betetzen dela zaintzen du, Fundazioaren xedeak betetzen ditu eta erakundearen ondasunak eta eskubideak administratzen ditu.
Lugaritzeko emakume auzokideak: Lugaritzeko babesdun etxebizitzetan bizi izan den edozein pertsona.

- **Gai materialak identifikatzea**

Interes talde bakoitzarentzat hainbat tresna zehaztu ditugu, entzuteko eta hitz egiteko etengabeko kanal irekia izatea ahalbidetzen digutenak. Asmoa hauxe da: tresna horiek etengabe eguneratu eta berrikustea, eta, horrela, interes talde bakoitzaren beharrak eta itxaropenak eraginkortasun handiago identifikatzea, etengabeko ikaskuntza ahalbidetuz.

Hona hemen interes taldeen eta erabilitako komunikazio bideen xehetasunak:

Interes taldeak	Entzuteko eta/edo elkarriketarako bideak
Erabiltzaileak eta familiak	Inkestak, foku taldeak, familia batzordeak, erabiltzaile batzordeak, Erabiltzailearen Arretarako Zerbitzua (SAU), «Matia Orienta» informazioa eta orientazioa, harreman zuzena profesionalekin (elkarriketak, deiak), ekitaldiak eta jarduerak, webgunea eta bloga, sare sozialak
Langileak	Inkestak, balio pertsonalen ebaluazioa (Barrett), foku taldeak, laneko segurtasun eta osasun batzordeak, enpresa batzordeak, web orria eta bloga, sare sozialak, topaketak eta foroak, harreman zuzena arduradunekin, posta elektronikoa, telefonoa
Hornitzaileak	Jarraipen bilerak, posta elektronikoa, telefonoa
Administrazio publikoak	Bilerak, inkesta instituzionala, topaketak eta foroak, posta elektronikoa, telefonoa, ikuskapenak
Komunitatea	MatiaZaleen batzorde mistoa, lankidetzak hitzarmenak, lankidetzak bilerak, sare sozialak, web orria eta bloga, zaintzaileentzako prestakuntza (Sendian eta PECE programak), esku hartze komunitarioko proiektuak (Euskadi Lagunkoia), «Matia Orienta» informazioa eta orientazioa, ekitaldiak eta jarduerak
Sektore soziosanitarioko profesionalak	Adituen foroak, kongresuak/jardunaldiak, kanpoko prestakuntzak, laguntza eta aholkularitza, sare sozialak, web orria eta bloga
Elkarteak eta boluntarioak	Bilerak, posta elektronikoa, telefonoa, topaketak eta foroak
Patronatua	Bilerak, posta elektronikoa, telefonoa, topaketak eta foroak
Lugaritzeko emakume auzokideak	Erreferentziazko profesionala, Lugaritzeko eraikuntza taldea

Entzuteko bide horiez gain, honako hauek hartu dira kontuan fase honetan:

- Gizarte erantzukizun korporatiboko joerak eta beste erakunde batzuen jasangarritasun memoriak kontsultatzea.
- Nazio Batuen Mundu Ituna eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJHak).
- Jardueran izango duen eraginaren arau azterketa.
- Itunak administrazio publikoekin.
- Eusko Jaurilaritzaren 2021-2024 aldiko Adinekoekiko Euskal Estrategia.
- Erakundeak identifikatutako protokoloak, gidak, eskuliburuak, irizpide etikoak, balioak, arriskuak eta aukerak.
- Ikerketa zientifikoko azterlanak.
- Komunikabideetan zabalduetako argitalpenak, albisteak eta abar, sektorearen joerei, interes taldeen behar eta itxaropenei eta abarri lotutakoak.

Hala, interes taldeek identifikatu eta antolatu dituzten alderdi materialik garrantzitsuenak honako hauek dira:

Personas usuarias - Atención Personalizada - Buen Trato - Apoyo en continuidad de cuidados - Autonomía y capacidad de decisión - Información - Entorno y ambientes - Transformación de Modelo de Cuidados - Salud y Seguridad - Vida Significativa y bienestar - Gestión y Organización	Personas familiares - Atención personalizada - Buen Trato - Conocimiento del profesional de referencia sobre usuario y familia - Autonomía y capacidad de decisión - No rotación del personal - Entorno y ambientes - Gestión y organización	Administraciones públicas - Desarrollo de proyectos innovadores - Colaboración - Sostenibilidad - Cumplimiento legal - Cobertura servicios concertados con resultados de calidad acordados - Innovación (relacionado con los cuidados y envejecimiento) - Transformación de Modelo de Cuidados	Voluntariado - Identificar necesidades en personas y/o en la organización, susceptibles de recibir apoyo de otras personas y/o acciones de carácter voluntario - Recibir y información y apoyo para llevar a cabo la labor voluntaria - Trabajar de forma colaborativa - Comunicación fluida y abierta - Reconocimiento	Profesionales del sector socio-sanitario - Conocimiento (relacionado con los cuidados y envejecimiento) - Innovación (relacionado con los cuidados y envejecimiento) - Colaboración - Transformación de Modelo de Cuidados
Personas trabajadoras - Reconocimiento - Comunicación fluida y abierta - Autonomía y capacidad de decisión - Apoyo - Bienestar - Actitud positiva - Colaboración - Confianza - Transformación de Modelo de Cuidados	Patronato - Información - Cumplir los fines fundacionales y administrar diligentemente su patrimonio - Colaboración - Comunicación fluida y abierta	Sociedad - Permanencia en domicilio - Entornos amigables - Soledad Necesidades no cubiertas - Información - Medio ambiente - Ética - Transformación de Modelo de Cuidados	Proveedores - Alianzas y Participación n proyectos - Sostenibilidad - Impacto medioambiental - Relación de Beneficio mutuo - Información - Regularidad en pagos	Vecinas/os de Lugaritz - Accesibilidad - Aspectos económicos

• Alderdi materialak lehenestea


Alderdi materialak lehenesteko, interes taldeek alderdi horiei emandako balorazioa edo puntuazioa hartu da kontuan, eta hiru kategoria nagusitan sailkatu dira, garrantzi mailaren arabera: handia, ertaina eta txikia.

Illo horretan, zuzendaritza taldeko kideek eta zentro eta zerbitzuetako arduradunek egindako balorazioa ere hartu da kontuan, ACUMEN metodologiari jarraikiz (gizarte berrikuntzako Sinnple aholkularitza enpresaren laguntzarekin). Horri esker, erakundearen dimentsio ekonomikoan eta ospean izandako inpaktuari lotutako hainbat alderdi lehenetsi eta hiru mailatan sailkatu dira, garrantzi mailaren arabera: handia, ertaina eta txikia. Metodologia horri esker, Matiak badaki zein den bere asmoaren betetze maila.

Jarraian, alderdi material horietako bakoitza 2016-2020 Plan Estrategikoan agertzen diren erronken inpaktuarekin lotu da. Alderdi bakoitzaren lehentasuna eta garrantzia erronka nagusian (handia) edo laguntza erronketan (ertaina) duen eraginaren arabera zehazten da (alderdi materialen bat ezin izan bada erronka estrategikoekin lotu, balorazio txikia eman zaio).

Emaitza gisa, materialtasun matrize hau lortu da: ardatz bertikalean, erronkek interes taldeetan eta erakundearen ospean duten inpaktua islatzen da, eta ardatz horizontalean, berriz, Matiaren asmoan eta estrategian duten inpaktua (erronken bidez hedatua).

Matiaren 2016-2020 Plan Estrategikoaren erronkak	Lehentasun maila
Erronka nagusia: Matia ereduaren garatzea	Handia
1. laguntza erronka: Matia ereduaren garapenari lotutako ebidentziak sortzea, I+G proiektuen bidez	Ertaina
2. laguntza erronka: Matia ereduaren jasagarritasuna sustatzea	Ertaina
3. laguntza erronka: erakundea egokitzea Matia ereduaren garatzeko	Ertaina
4. laguntza erronka: kanpo lankidetzak sustatzea, Matia ereduaren garatzea laguntzeko	Ertaina



Identifikatutako erronka, aukera eta itxaropen guztiak erakundearen zentroek, zerbitzuek eta prozesuek urteko ekintza planetan zehaztutako jarduketa zehatzen bidez hedatzen dira.

- **Emaitzak BALIOZKOTZEA**

Baliozkotze prozesuak amaiera ematen dio edukiak identifikatzeko prozesuari, eta CEMIren eta zuzendari nahiz arduradun taldearen parte hartzearen emaitza da. Etapa horretan, alderdi materialak baliozkotuko dira, haien irismenaren, estalduraren eta erreferentzia aldiaren arabera. Horrela, exhaustibotasunaren printzipioa aplikatuta, memoria honetan eman beharreko alderdiak zehazten dira, urteko inpaktu txostena egiteko informazio gisa erabiliko direnak. Txosten hori Matiaren Patronatuak baliozkotzen du, erakundeak jasagarritasuna eta asmoa betetzeko eginiko ekarpenen erakusgarri.

9. Identifikatutako premiei emandako erantzuna

Matiaren konpromisoa zaintza behar duten pertsonekin: eraikuntza kolektibotik kultura eraldaketarantz.

Agerian gelditu denez, Matiak erronka garrantzitsuak ditu laguntza behar duten pertsonen ongizatea hobetzeko bidean, etengabe aldatzen ari den gizarte trebatuago eta zorrotzago baten testuinguruan.


Erantzun egokia emateko, Fundazioak eraldaketa prozesu etengabea —pertsonala nahiz kolektiboa— jorratu behar duelakoan gaude.

Ibilbide horren abiapuntua ezagutzen dugu; ez, ordea, helmuga, prozesua bera baita ziurtasun bakarra.


Zahartzen ari diren pertsonen lehentasunei beha egon behar dugu beti, partekatutako balioetan eta ezagutzaren sorreran oinarrituta eraikitzen jarraitzeko.

Gure ustetan, partaidetzako eraikuntzak ahalik eta irekiena izan behar du. Gure asmoa da gero eta pertsona gehiagok egitea bat.

Horregatik, prozesuaren emaitza ez ezik, hura egiteko modua bera ere nabarmendu behar da, erakundearen maila eta jarduera guztietan parte hartu duten pertsonen kopuru handia azpimarratuta. Hala, dimentsio anitzeko errealitate konplexu bateko pertzepzioak eta sentsibilitateak bildu eta proiektu bateratua, Matia, eraikitzeko aukera izango dugu.



10. Negozio eredu. Erakunde egitura



• Patronatua

Matia irabazi asmorik gabeko fundazio pribatua da, interes orokorreko deklaratu, eta 130 urte baino gehiagoko esperientzia du, Gipuzkoan zerbitzu soziosanitarioak ematen. Patronatua hainbat lanbide eremutako 7 pertsona nabarmenek osatzen dute, eta bakoitzak bere kabuz eta borondatez hartzen du parte gobernantzan.

Patronatua Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak arautzen du.

2022an kideak berrikusi ziren, eta hauxe da gaur egungo osaera:

• Osaera

Lehendakaria	María Carmen Garmendia Lasa
Lehendakariordea	María Luisa Guibert Ucin
Idazkaria	José Luis Larumbe Martín
Idazkariordea	Elisa Gascue Echebeste
Kideak	• Rosario Segura Lasa • Jesús M. Ferro Múgica • Juan José Álvarez Rubio

• Funtzionamendua

Patronatuaren bilera nagusia (urtean bitan eta aparteko deialdi bidez). Estatutu propioak ditu.

Barne Araudiak honako hauek xedatzen ditu:

- Patronatuaren definizioa
- Patronatuko kideen karguaren definizioa
- Patronatuko kideen izendapena eta Patronatua berritzea
- Patronatuko karguak
- Patronatuko kideen beste betebeharrak
- Batzordeak
 - Izendapen Batzordea
 - Auditoria eta Betetze Batzordea
- Zuzendari nagusiaren izendapena

Informazio guztia gure webgunean dago, gardentasuna bermatze aldera.

11. Jarduera eta jarduketa aipagarriak



Jarraian, gure zentro eta zerbitzuen 2023ko jardura azalduko dugu.

	Artatutako pertsonen kopurua
OSASUN ESPARRUA	
Ospitalea	1.522
Kontsultak	2.109
Errehabilitazio anbulatorioa	8.114
Logopedia	811
Arreta psikosoziala (EAPS)	1.190
OSASUN ESPARRUA, GUZTIRA	13.746
GIZARTE ESPARRUA	
Adinekoentzako egoitza zentroak	997
Tutoretzapeko apartamentuak	12
Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako egoitza zentroa	86
Buruko arazoak dituzten pertsonentzako egoitza unitatea (BNLEU)	16
Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako unitatea	11
UCAS	14
Unitate soziosanitarioa	71
GIZARTE ESPARRUA, GUZTIRA	1.207
KOMUNITATE ESPARRUA	
Matia Orienta	1.674
Etxez etxeko arreta	816
PECEF prestakuntza	968
SENDIAN programa	643
Eguneko zentroak	195
KOMUNITATE ESPARRUA, GUZTIRA	4.296
2023 GUZTIRA	19.249

Adierazi beharra dago 2023. urtearen amaieran 22 etxebizitza zeudela okupatuta. Lugaritzeko babesdun etxebizitzetan, baina pertsona horiek beren etxebizitzan daudenez, ez ditugu taulan jaso. Pertsona horiek koadroan egon litezke, taulako edozein zerbitzuren erabiltzaileak izanez gero.

- **2023ko jarduketa aipagarriak**
 - **Egurtzegiko bizikidetza unitateetako etxebizitzaren eta eguneko zentroaren inaugurazioa.**

Egurtzegiko bizikidetza unitateetako etxebizitzak Usurbilen daude. Orubea Kalezar auzoaren inguruan dago eta Oriako bailararako ikuspegi itzelak ditu. 127 lagunentzako 110 bizitoki eskaintzen ditu guztira. Lau eraikin dira, elkarren artean beirazko elementu arinez lotuak baina independentziaz funtzionatzen dutenak. Bizitokiak hainbat solairutan banatutako zazpi bizikidetza unitatetan (BU) biltzen dira, eta haietako bat dibertsitate funtzionaleko unitatea da.

Bizitokiek sarrera txiki bat dute, gurgildun aulkia, taka-taka edo bestelakoak uzteko tokiarekin; gainera, pertsona bakoitzak nahi duen gauzeekin edo altzariekin pertsonalizatzeko aukera dagoenez, orientatzea eta identifikatzea errazagoa da dementzia duten pertsonentzat. Gainera, etxebizitza bakoitzak «kortesiazko» sukalde txiki bat du, «gela» kontzeptuaren ordez «etxebizitza» kontzeptuari eusten laguntzen duena. Bizitokiaren gune nagusian egongela eta logela daude, armairu baten bidez banatuta, pribatutasun handiagoa eskaintzeko, baina trenkadarik gabe, espazioa eta zabaltasun sentzazioa murrizten dutelako.

Azkenik, bainugela egokitua dago, zaintzaileek egin beharreko lanak egiteko espazio nahikoarekin. Bizitokiaren eremu osoa pribatua da eta, beraz, erabiltzaileak berak ekar ditzake altzariak eta apaingarriak. Etxebizitza propioa apaintzen zuten objektu pertsonalak eta altzariak ezinbestekoak dira etxebizitza «berria» sortzeko, gure bizimodua irudikatzen dutelako eta hari lotutako oroigarriak biltzen dituztelako.

Guneak, halaber, hurbileko zerbitzuak ditu, hala nola kafetegia eta ile apaindegia. Gainera, haur parke bat duen plaza batean dago. Horrez gain, eraikinari erantsita, Egurtzegi eguneko zentro berria dago: bi modulu ditu, eta bakoitza 20 pertsonarentzat da.

Bizikidetza unitateetako etxebizitzak eta eguneko zentroa 2023ko uztailean inauguratu ziren.

- **Lugaritzeko babesdun etxebizitzaren eta eguneko zentroaren inaugurazioa, eta berrikuntza zentroa abiaraztea**

Lugaritzeko babesdun etxebizitzaren proiektua berritzailea da, bizitza osorako etxebizitzak biltzen dituenak. Zahartze prozesuan dauden, nolabaiteko laguntza behar duten eta bizitza proiektuari bizilekuan jarraitutasuna emateari lehentasuna ematen dioten pertsonen zuzenduta daude etxebizitzak. Gainera, etxebizitzak bikoteen edo familia bizikidetzako unitateen elkarbizitzara bideratuta daude, eta egoitzaren ordezko baliabideetat hartzen dira.

53 etxebizitza daude, 2 edo 3 gelakoak.

Gainera, etxebizitzetarako sarbide nagusia dagoen plazan bertan, Lugaritzeko eguneko zentroa (40 pertsonarentzat) eta berrikuntza zentroa daude.

Babesdun etxebizitzak 2023ko ekainean inauguratu ziren, eguneko zentroa 2023ko urrian, eta berrikuntza zentroa, berriz, 2023ko abenduan.

- **Pasaia eta Tolosako Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren (ELZ) prestazioa abiatzea**

Laguntza behar duen pertsonari bere bizilekuan jarraitzeko aukera ematea sustatzen du etxez etxeko laguntza zerbitzuak. Laguntza hori bizilekuan bertan moldatu ahal izatera, bizi proiektuarekin jarraitzea eta komunitate ingurunean integratzea bideratuta dago.

Ikuspegi horrekin, 2023. urtean Matiak etxez etxeko laguntza zerbitzuaren prestazioa zabaldu zuen, baita Pasaia eta Tolosara ere. Horren bidez, adinekoen beharrei eta lehentasunei bizilekuan bertan erantzuten zaie, bizi proiektuarekin bertan jarraitu ahal izateko.

Tolosan, 2023ko otsailean hasi ginen etxez etxeko laguntza zerbitzua ematen.

Pasaian, berriz, 2023ko uztailan.

- **«Etxean bezala» proiektuaren esku hartzeko fasea**

Matiak 2022ko urtarrilaz geroztik zuzentzen du «Etxean bezala» proiektua, Matia Fundazioak eta Matia Institutuak elkarlanean egindakoa. Gizarte Eskubideen Ministerioak eta Agenda 2030ek finantzatzen dute, 2021eko abenduaren 10eko 1101/2021 Errege Dekretuaren esparruan —hirugarren sektoreko erakundeei zuzeneko dirulaguntzak ematea arautzen du, gizarte zerbitzuak eta adinekoak, haurrak eta etxerik gabeko pertsonak zaintzeko ereduak modernizatzea helburu duten berrikuntza eta ikerketa proiektuetarako, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan—. Planaren xedea da egoitza zentroak eraldatzeko eta «etxean bezala» moduko leku bihurtzeko ibilbidea sortzea, pertsonarengan ardaztutako arretaren ikuspegitik.

Bi fundazioek beren zentro eta zerbitzuetan pertsonengan ardaztutako ereduak ezartzeko hamar urte baino gehiagoko ibilbidean metatu duten esperientziatik abiatuta, eta egoitza inguruneetan bizi diren pertsonen ongizatea sustatzen duten alderdiak oinarri hartuta, asmoa da pertsonengan ardaztutako inguruneetarantz egitea,

haientzat esanguratsua dena eta ongizatea dakarkiena aintzat hartuta.

Horretarako, proiektua elkarren artean lotutako hamar lan paketetan egituratzen da. Egiten diren jarduketa guztiak barruan eta kanpoan ebaluatuko dira, hainbat metodologia eta teknika erabiliz, egoitza ingurunean duten eragina ezagutzeko helburuarekin.

2023. urtean, esku hartzeko fasea egin da, eta «#EtxeanBezala. Parte hartzea eskubide gisa: nire bizitza nik erabakitzen dut» jardunaldiarekin amaitu zen.

- **«#EtxeanBezala. Parte hartzea eskubide gisa: nire bizitza nik erabakitzen dut» jardunaldia, «Etxean bezala» proiektuaren lehen bi urteak ospatzeko, esku hartzeko fasea amaitu ondoren**

«Etxean bezala» proiektuaren esparruan, Matiak «Parte hartzea eskubide gisa: nire bizitza nik erabakitzen dut» jardunaldia antolatu zuen, eta abenduaren 14an egin zen, Donostiako «Alberto Iglesias» ekitaldi aretoan (Olarain). Pertsonak beren bizi proiektua garatzeko behar dituzten zerbitzu eta laguntzetan parte hartzearen garrantziari buruzko gogoeta egin zen topaketa horretan.

12. Sozietatea – Informazio ekonomikoa

- Adierazleen panela (Matia)

KUDEAKETA TXOSTENA 2022-12-31N

INDICADORES				PRESUPUESTO ANUAL	ACUMULADO					
					Presupuesto	Real	Año Anterior	Real - Ppto	Real - AA	
Actividad	Area Social	Residencial	Ocupación de Residencias	97,62%	97,62%	96,52%	93,29%	-1,10%	3,23%	
	Area Sanitaria	Hospital	Ocupación Hospital	88,25%	88,25%	75,24%	82,02%	-13,00%	-6,78%	
			Número de Altas del Hospital	1.586	1.586	1.497	1.430	-89	67	
			Estancia Media en Hospital	23,27	23,27	22,64	24,12	-0,63	-1,48	
			Número de Tratamientos Realizados	129.664	129.664	124.582	123.618	-5.082	964	
		Rehabilitación	Número de Pacientes	8.131	8.131	7.149	7.543	-982	-394	
			Número de Tratamientos por Paciente	16	16	17	16	1	1	
			LO	Número de Tratamientos Logopedia	14.107	6.763	15.638	14.020	8.875	1.618
		CE	Número de Consultas Externas	5.441	5.441	5.898	5.902	457	-4	
		Area Comunitaria	CD	Ocupación de centros de día	86,77%	86,77%	88,17%	71,38%	1,40%	16,79%
			SAD	Número de horas	148.748	119.046	128.746	49.556	9.700	79.190
	Asist Pers		Número de horas	24.728	24.728	19.863	11.516	-4.865	8.347	
			Personas atendidas	111	111	-	-	-	-	
	Area Investigación	Instituto	Número de investigadores	27		28		0	28	
			Tasa Horaria	35		35		35	35	
			Proyectos en marcha	20		28		28	28	
	Valoraciones		Nº valoraciones discapacidad	5.397	5.397	4.626	5.153	-771	-527	
			Nº valoraciones dependencia	20.552	20.551	10.503	15.726	-10.048	-5.223	
	Resultados actividad	Matia		Ingresos de Explotación	70.414.705	70.414.705	71.017.735	60.982.878	603.941	603.941
			Resultados actividad	3.900.033	3.900.033	832.362	2.195.000	-3.221.412	-3.221.412	
			% Resultado sobre ingresos	5,54%	5,54%	1,17%	3,60%	-4,58%	-4,58%	
			EBITDA	6.176.624	6.176.624	3.194.925	3.991.057	-3.437.064	-3.437.064	
			% EBITDA sobre ingresos	8,77%	8,77%	4,50%	6,54%	-4,91%	-4,91%	
			Servicio de la deuda	3.773.217	3.773.217	4.207.061	3.919.591	433.844	433.844	
			Inversiones ordinarias			1.008.825	1.031.867	1.008.825	1.008.825	
			Disponibilidad tesorería	2.403.407	2.403.407	-2.020.961	-960.401	-4.879.733	-4.879.733	
			Independenci a Financiera	56,72%	56,72%	54,87%	49,15%	-1,85%	-1,85%	
			Fondo de Maniobra	-1.368.657	-1.368.657	-4.982.214	624.310			

• JOSÉ MATÍA CALVO FUNDAZIOA ETA MENDEKO SOZINETATEAK

GALDU IRABAZIEN KONTU AUDITATUA, 2023KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKIONA (eurotan)

	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017
A) OPERACIONES CONTINUADAS							
1. Importe neto de la cifra de negocios.	63.920.113,02	56.047.910,75	50.558.133,50	45.286.151,85	45.576.684,55	45.051.584,59	47.063.197,12
b) Prestaciones de servicios.	63.920.113,02	56.047.910,75	50.558.133,50	45.286.151,85	45.576.684,55	45.051.584,59	47.063.197,12
4. Aprovisionamientos.	-8.391.624,67	-8.007.579,12	-7.446.757,10	-7.834.190,97	-7.244.588,91	-7.412.802,13	-7.683.071,75
a) Consumo de mercaderías.	-1.382.945,05	-1.259.480,89	-917.445,97	-865.375,25	-866.833,74	-864.921,69	-845.034,99
b) Consumo de materias primas y otras materias consumibles.	-3.417.440,48	-2.920.121,50	-2.536.840,18	-2.530.755,36	-2.005.954,65	-2.135.626,87	-2.211.662,97
c) Trabajos realizados por otras empresas.	-3.591.239,14	-3.827.976,93	-3.992.470,95	-4.238.060,36	-4.371.800,52	-4.412.253,57	-4.626.373,79
5. Otros ingresos de explotación.	4.204.125,70	2.826.399,22	1.339.656,40	1.406.258,97	1.333.587,19	1.303.984,36	1.176.244,87
a) Ingresos accesorios y otros de gestión corriente.	2.243.784,88	1.885.221,82	1.027.328,08	1.160.221,97	1.154.845,08	1.190.905,76	1.110.444,27
b) Subvenciones de explotación incorporadas al resultado del ejercicio.	1.960.340,82	941.177,40	312.328,32	246.037,00	178.742,11	113.078,60	65.800,60
6. Gastos de personal.	-51.855.182,00	-42.799.967,80	-37.071.287,97	-33.008.699,65	-32.576.974,97	-31.145.039,42	-32.379.096,79
a) Sueldos, salarios y asimilados.	-38.445.800,81	-31.785.915,52	-27.371.601,07	-24.100.273,72	-24.244.977,14	-23.159.148,18	-24.209.627,50
b) Cargas sociales.	-13.409.381,19	-11.014.052,28	-9.699.686,90	-8.908.425,93	-8.331.997,83	-7.985.891,24	-8.169.469,29
7. Otros gastos de explotación.	-5.128.321,54	-4.626.557,59	-3.590.858,68	-3.413.192,66	-3.413.239,70	-3.390.742,90	-3.596.936,84
a) Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales.	0,00	0,00	1.175,58	-39.062,15	0,00		-4.922,20
b) Otros gastos de gestión corriente.	-5.128.321,54	-4.626.557,59	-3.592.034,26	-3.374.130,51	-3.413.239,70	-3.390.742,90	-3.592.014,64
8. Amortización del inmovilizado.	-2.393.730,44	-2.186.295,90	-2.119.887,58	-1.829.577,66	-1.851.578,84	-2.008.517,79	-2.051.855,87
9. Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero y otras.	492.781,56	504.427,85	485.510,59	212.075,16	213.621,02	214.005,17	212.075,00
10. Excesos de provisiones							
11. Deterioro y resultado por enajenaciones del inmovilizado.	-334,80	-334,80	787,56	-334,80	-2.303,97	-13.104,58	-590,04
a) Deterioros y pérdidas.	-334,80	-334,80	787,56	-334,80	-2.303,97		
b) Resultados por enajenaciones y otras.						-13.104,58	-590,04
13. Diferencia negativa en combinaciones de negocios			47.911,24				
14. Otros resultados	349.293,74	-3.368,89	12.361,34	-22.487,74	338.188,89	64.574,11	-14.717,16
A.1) RESULTADO DE EXPLOTACIÓN (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13+14)	1.197.120,57	1.754.633,72	2.215.569,30	996.002,50	2.373.395,26	2.663.941,41	2.725.248,54
15. Ingresos financieros.	6.791,49	5.270,52	7.429,72	11.672,47	10.682,10	12.576,79	12.485,86
b) De valores negociables y otros instrumentos financieros.	6.791,49	5.270,52	7.429,72	11.672,47	10.682,10	12.576,79	12.485,86
16. Gastos financieros.	-519.318,29	-374.476,37	-260.150,91	-248.938,52	-386.358,65	-544.756,34	-637.282,34
A.2) RESULTADO FINANCIERO (15+16+17+18+19)	-376.254,78	-287.702,13	-252.721,19	-237.266,05	-355.676,55	-532.179,55	-624.796,48
A.3) RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS (A.1+A.2)	820.865,79	1.466.931,59	1.962.848,11	758.736,45	2.017.718,71	2.131.761,86	2.100.452,06
24. Impuestos sobre beneficios.	-53.068,55	-10.136,80	-14.834,86			-12.176,05	0,00
A.4) RESULTADO DEL EJERCICIO PROCEDENTE DE OPERACIONES CONTINUADAS (A.3+23)	767.797,24	1.456.794,79	1.948.013,25	758.736,45	2.017.718,71	2.119.585,81	2.100.452,06
A.5) RESULTADO CONSOLIDADO DEL EJERCICIO (A.4+24)	767.797,24	1.456.794,79	1.948.013,25	758.736,45	2.017.718,71	2.119.585,81	2.100.452,06

• MATIA INSTITUTU GERONTOLOGIKOA – INGEMA FUNDAZIOA

GALDU IRABAZIEN KONTU AUDITATUA, 2023KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKIONA (eurotan)

- DIRU SARRERAK

OSASUN ARLOAN honako hau azpimarra dezakegu:

	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017
A) OPERACIONES CONTINUADAS							
1. Importe neto de la cifra de negocios.	2.887.021,14	2.582.255,28	1.163.715,16	1.049.442,00	978.373,54	806.551,89	864.948,05
b) Prestaciones de servicios.							
4. Aprovisionamientos.	-827.532,28	-869.329,01	-214.332,67	-123.039,95	-160.958,84	-143.548,64	-163.344,79
a) Consumo de mercaderías.							
b) Consumo de materias primas y otras materias consumibles.							
c) Trabajos realizados por otras empresas.							
5. Otros ingresos de explotación.	111.004,43	36.210,68	403.436,88	402.187,84	411.687,84	414.523,69	552.947,68
a) Ingresos accesorios y otros de gestión corriente.							
b) Subvenciones de explotación incorporadas al resultado del ejercicio.							
6. Gastos de personal.	-1.671.319,96	-1.324.983,55	-1.022.866,69	-973.240,62	-844.141,79	-725.095,01	-948.122,32
a) Sueldos, salarios y asimilados.	-1.279.052,27	-1.026.304,94	-777.760,76	-713.960,49	-619.943,96	-569.671,70	-775.690,05
b) Cargas sociales.	-392.267,69	-298.678,61	-245.105,93	-259.280,13	-224.197,83	-155.423,31	-172.432,27
7. Otros gastos de explotación.	-327.038,17	-199.783,36	-135.122,62	-299.607,08	-266.516,56	-258.830,70	-215.898,09
a) Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales.							
b) Otros gastos de gestión corriente.							
8. Amortización del inmovilizado.	-219.199,66	-10.633,05	-9.241,44	-5.267,76	-8.108,06	-10.156,44	-29.563,44
9. Subvenciones, donaciones y legados traspasados al excedente del ejercicio	132.204,31	2.187,84					
11. Deterioro y resultado por enajenaciones del inmovilizado.		9,80		-100,68			
a) Deterioros y pérdidas.				-100,68			
b) Resultados por enajenaciones y otras.							
12. Otros resultados.	31.775,86						
A.1) RESULTADO DE EXPLOTACIÓN (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13+14)	116.915,67	415.934,63	185.588,62	50.373,75	110.336,13	173.444,79	60.967,09
15. Ingresos financieros.		242,97	508,81		6.150,46		
a) De participaciones en instrumentos de patrimonio.							
Imputaciones de subvenciones, donaciones y legados de carácter financiero							
b) De valores negociables y otros instrumentos financieros.		242,97	508,81		6.150,46		
16. Gastos financieros.	-197.739,85	-106.881,78	-11.723,45	-5.238,05	-9.279,41	-22.955,13	-17.255,83
A.2) RESULTADO FINANCIERO (15+16+17+18+19)	-52.350,95	-10.483,82	-11.214,64	-5.238,05	-3.128,95	-22.955,13	-17.255,83
A.3) RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS (A.1+A.2)	64.564,72	405.450,81	174.373,98	45.135,70	107.207,18	150.489,66	43.711,26
24. Impuestos sobre beneficios.							0,00
A.4) RESULTADO DEL EJERCICIO PROCEDENTE DE OPERACIONES CONTINUADAS (A.3+23)	64.564,72	405.450,81	174.373,98	45.135,70	107.207,18	150.489,66	43.711,26
B) OPERACIONES INTERRUMPIDAS							
25. Resultado del ejercicio procedente de operaciones interrumpidas neto de impuestos.						0,00	0,00
A.5) RESULTADO CONSOLIDADO DEL EJERCICIO (A.4+24)	64.564,72	405.450,81	174.373,98	45.135,70	107.207,18	150.489,66	43.711,26
Resultado atribuido a la sociedad dominante	64.564,72	405.450,81	174.373,98	45.135,70	107.207,18	150.489,66	43.711,26
Resultado atribuido a socios externos							

15.591.000 euroko guztizko fakturazioarekin amaitu dugu urtea. Alderdi pribatuan, guztizko fakturazioa 178.101,70 eurora iritsi da.

○ **Ospitalea**

Ospitaleko okupazioa % 79,62koa izan da abenduan, eta urteko okupazioa, berriz, % 75,24ra iritsi da. 2023. urtean, batez besteko egonaldia 22,65 egunekoa izan da, eta, beraz, 3 egunetan murriztu dugu batez besteko egonaldia aurtengo urtarilarekin alderatuta. Oso berri ona da, eta 2023. urtean berretsi egin dela dirudi. Egoera berri hori aukera ona da ospitalearen efizientzia hobetzeko, batez besteko egonaldi horrekin eta ospitaleratze kopuru berarekin ospitaleko okupazioaren maila txikiagoa izango baita. Horrek guztiak aukera emango digu okupatu gabeko ohe horiekin zerbitzu aukera berriak sortzeko.

Paziente pribatuei dagokienez, aurten 216 egonaldi izan ditugu ospitalean, eta 73.988 euro fakturatu ditugu.

○ **Errehabilitazioa eta logopedia**

Errehabilitazioaren arloan, 2022an baino 964 tratamendu gehiago egin dira, fisioterapeuten efizientzian lortutako hobekuntzari esker. Egindakoak baino tratamendu gehiago egitea espero bagenuen ere, abendua oso hilabete txarra izan da bertan behera utzitako tratamenduei dagokienez. Azken orduan bertan behera utzi diren tratamendu asko izan dira, eta ezin izan ditugu bete.

Logopedian, 15.638 tratamendu egin ditugu, joan den urtean baino 1.618 gehiago.

Oro har, urte ona izan du errehabilitazioak. Izan ere, 2022. urtean baino 130.000 euro gehiago fakturatu ditugu, eta, beraz, fakturazioak % 3,5eko igoera izan du. Igoera hori fisioterapeuten efizientziak izan duen hobekuntzari esker (lan egindako orduko 2 paziente inguru artatu dira) eta paziente batzuen kasuan prozesuetatik tarteetara igaro izanari esker lortu da.

Arlo pribatuan, 82.131 euro fakturatu ditugu errehabilitazio tratamenduetan, eta 9.168 euro logopedia tratamenduetan.

○ Kanpoko kontsultak

Kontsulten jarduerari dagokionez, egindako kontsulten kopurua 2022ko ia bera izan da. Fakturazioa, berriz, txikiagoa izan da, bigarren kontsulten eta ondorengo kopuruak gora egin baitu lehen kontsulten kopuruarekin alderatuta.

Kontsulta pribatuen fakturazioa 12.814 eurora iritsi da.

EGOITZA ARLOAN, 2023ko batez besteko okupazioa % 96,52koa izan da. 2023. urtean hiru puntu igo gara 2022. urtearekin alderatuta. Nolanahi ere, % 99 inguruko okupazioa lortzen saiatuko gara 2024an.

Okupazioaren jarraipen lana egiten ari gara astean bitan, zuzendariekin eta zerbitzu nagusiekin batera, altei dagokienez ahalik eta efizienteenak izateko.

Otsailean, Aldundiak kendu egin zion Matiari COVID-19agatik 14 egoitza plaza eta 1 plaza soziosanitario libre edukitzeko betebeharra. Martxoaren 20tik aurrera, ez dugu jaso Aldundiak plaza horiek libre edukitzeagatik ematen zigun dirua. COVID-19rako plaza horiek kentzeak eragin negatiboa izan zuen okupaziorik txikieneko zentroetan. Bestalde, martxoan Aldundiak 20.000 euro inguru sartu zizkigun 2022ko martxotik abendura bitartean COVID-19agatik sortutako aparteko gastuen ordainetan. Horretarako, kontuan hartu dute aldi horretan zenbat egunetan izan ditugun COVID-19a zuten erabiltzaileak, eta 10 euro ordaindu dizkigute bakoitzeko.

2023-12-31n haxe da zentro bakoitzeko okupazioaren ehunekoa, publikoak eta pribatuak bereizita:

				A 31 de diciembre de 2023		
Bermingham	UR	Público Privado	24 16	24 15	100% 94%	
Elizaran	AT UCAS	Público Público	10 18	10 13	100% 72%	
Egurtzegi	UR UDF	Público Privado Público	108 0 19	106 0 15	99% 0% 79%	
IZA	UDF	Público	78	75	96%	
Rezola	UR	Público Privado	108 15	108 12	100% 80%	
Argixao	SOCIO UDF UR	Público Público Público Privado	27 10 71 9	26 10 70 8	96% 100% 99% 89%	
Lamorous	UR	Público Privado	100 45	97 43	97% 96%	
Otezuri	UR	Público Privado	89 21	88 20	99% 95%	
Petra Lekuona	UR URTMS	Público Privado Público Privado	103 2 16 0	103 2 15 0	100% 50% 94% 0%	
			889	860	96,7%	
			Público Privado Total	781 108 889	760 100 860	97,3% 92,6% 96,7%

Egurtzegi zentroak uztailaren 17an eman dio hasiera bere jarduerari. Fraisoroko egoiliarak zentro berrira eraman genituen, baita haien gauza guztiak eta zentroko altzari komun batzuk ere. Jende askok parte hartu zuen, bai zentroko pertsonak bai erakundekoek (bulego nagusietakoek, Institutukoek eta beste zentro eta zerbitzu batzuetakoek). Laguntza handia behar izan zen, egun batean 80 pertsona lekualdatu eta bizileku berrian egokitu behar izan baitziren.

Lehen hilabeteetan (ekainean eta uztailan), Matiak bere gain hartu behar izan zituen irekiera kostuak. Kontuan hartu behar dira hilabete horietan behar izan ziren errefortzuak eta ratio bikoiztasuna.

KOMUNITATE ARLOARI dagokionez, eguneko zentroak eta etxez etxeko zerbitzuak bereizten ditugu. Goxara sartu zenez geroztik, batera eta koordinatuta kudeatzen ari dira.

Eguneko zentroei dagokienez, urtarrilean %78,49ko okupazioa genuela kontuan hartuta, okupazioak gora egin du urte osoan, eta %90era iritsi da abenduaren 31n.

Fraisoro zentroa da okupaziorik txikiena duena, batez ere egoitza atala Usurbilera eraman delako eta horrek ziurgabetasuna eragin duelako. Ordiziako eta Beasaingo zentroak dira okupaziorik handiena dutenak. Azpimarratu beharra dago okupazioak Argixaoko eguneko zentroan izan duen igoera: %64,41eko okupazioa zuen urtearen hasieran, eta %93,74koa abenduan.

Otsailaren 15etik aurrera, Egurtzegi eguneko zentroa kudeatzen hasi ginen (lehenago Usurbilen kudeatzen zuen beste kudeatzaile batek, beste kokaleku batean). Oraingoz, ona izan da hasiera, eta herrian ongi hartu dela dirudi.

2023-12-31n, hauxe da okupazioa:

A 31 de diciembre de 2023

CENTRO	SERVICIO	TIPO	PLAZAS		
Elizaran	Laborable	Público	15	15	100%
	Festivo	Público	10	8	80%
Lugaritz	Laborable	Público	39	36	92%
	Laborable	Público	1	1	100%
Fraisoro	Laborable	Público	20	16	80%
	Festivos	Público	12	11	92%
Rezola	Laborable	Público	27	24	89%
	Laborable	Privado	1	1	100%
	Festivos	Público	18	11	61%
Argixao	Laborable	Público	30	28	93%
	Festivos	Público	25	24	96%
Lamorous	Laborable	Público	35	34	97%
	Laborable	Privado	5	1	20%
	Festivos	Público	10	10	100%
Beasain	Laborable	Público	18	17	94%
	Festivos	Público	12	12	100%
Ordizia	Laborable	Público	20	20	100%
	Festivos	Público	12	12	100%
Egurtzegi	Laborable	Público	18	18	100%
	Laborable	Privado	2	1	50%
	Festivos	Público	12	8	67%
			342	308	90,1%
	Laborable	Público	222	208	93,7%
	Laborable	Privado	9	4	44,4%
	Festivos	Público	111	96	86,5%
TOTAL			342	308	90,1%

Etkez etxeko laguntzari dagokionez, gaur egun kudeatzen ditugun etkez etxeko laguntza zerbitzuek espero zenaren arabera funtzionatzen dute, eta erabiltzaile bakoitzari eskainitako ordu kopuruak aurrekontuan ezarritakoak betetzen ditu, Beasainen izan ezik (12-31n, aurrekontuan zehaztutakoak baino 2.668 ordu gutxiago eskaini dira Beasainen).

Otsailean, Tolosako etkez etxeko laguntza zerbitzua kudeatzen hasi ginen. Gainera, apirilean Pasaia etxeko laguntza zerbitzua kudeatzeko lehiaketa irabazi genuen. Pasaia udalerrri handia da, eta Matiak harreman instituzional ona du harekin. Matia uztailean hasi zen etkez etxeko laguntza zerbitzu hori kudeatzen.

Era berean, maiatzean Ordiziako etkez etxeko laguntza zerbitzua berritzeko lanak egin dira. Hasieran, defizitarioa zen lehiaketa, kalkuluak ez baitziren zuzen egin. Udalarekin hitz egin ondoren, agiriak hobetu egin ziren eta aurkeztu egin ginen, estrategikoa baitzen, emaitza oso justua bada ere. Lehiaketa irabazi dugu, eta irailean hasiko gara lanean.

Etkez etxeko laguntzaren arloaren bolumena handitzeko, Azpeitiko eguneko zentroaren eta Zumarragako etkez etxeko laguntza zerbitzuaren lehiaketetara aurkeztu gara. Ebazpena gure aldekoa izan da etkez etxeko laguntza zerbitzuaren kasuan, baina negatiboa Azpeitiko eguneko zentroan.

Bestalde, Matiak laguntzaile pertsonalen zerbitzua ematen du. Zerbitzu pribatua da eta, gehienetan, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa lortu nahi duten pertsonen bizilekuetan jartzen da abian. 2024. urtean zerbitzu pribatua bultzatzeko, hainbat ekintza egin dira koordinatzaileei zerbitzua sustatzea ahalbidetuko dieten tresnekin laguntzeko.

Lugaritzen kasuan, azaroaren 30ean, eskuragarri dauden 51 apartamentuetatik 21 alokatuta ditugu, eta 1 erreserban. Apiriletik aurrera, hurbileko gizarte eragileen bisitak hasi ziren (hala nola farmazienak eta elkarteak), eta instalazioak erakutsi zitzaizkien. Gainera, hainbat gizarte eragilerekin bildu gara eta gizarte langileak eraman ditugu aukera hori familiei azaltzeko. Horren ondorioz, interesa esponentzialki igo da. Orain jende askok agertzen du interesa, eta informazioa eskatzeko deitzen du. Gainera, informazio guztia webgunean argitaratu da.

Horrez gain, gure ustez eskariak gora egingo du urbanizazio obra amaitzean (igogailua eta abar), apartamentuak irisgarriagoak izango direlako komunitatearentzat. Gai hori luzatzen ari denez gero, azterketa batzuk ari gara egiten, pertsonen behar errealei erantzungo dien zerbitzu bat eskaini ahal izateko.

Egurtzegi zentroko obra abian jarri arte sortutako gastuak aktibatu ditugu (uztailean).

BALORAZIOEN ARLOARI dagokionez, urtearen hasiera gogor samarra izan zen. Urtarrilaren hasieran, Aldundiak utzi egin zion mendekotasun balorazioak bidaltzeari, desgaitasun balorazioak soilik egin genitzan. Hori dela eta, langile asko prestatu behar

izan ditugu, balorazio mota hori egiteko, eta, beraz, ohikoak baino balorazio gutxiago egin dira.

Jarduera txikiago hori gure fakturazioan islatu da. Urte osoan, ezin izan dugu fakturatu kontratuaren oinarrian ezarritako gutxienekoa.

Bestalde, apirilaren 20an desgaitasunaren lege berria indarrean jarri ondoren, 4 gizarte langile kontratatu ditugu erabiltzaileen balorazio prozesu osoa egiteko, profesionalaren balorazioarekin hasi eta azken txostenarekin amaitzeraino. Akordio batera iritsi gara Aldundiarekin, 4 gizarte langile horiek kontratatzearen ondoriozko kostuaren hileko diru sarrera bermatzeko. Gainera, konpromisoa hartu dute 2023aren amaieratik 2024aren hasierara bitarte desgaitasunaren balorazio esparru berria eta prozesu berriak kontuan hartuko dituen lehiaketa abian jartzeko.

Horrez gain, desgaitasun balorazioak egitearen konplexutasuna dela eta, gure baloratzailleek aurreko legean ezarritakoa baino denbora luzeagoa behar dute, eta horrek eragin negatiboa du baloratzaille bakoitzaren efizientzian. Denbora gehiago behar dugu lehen egiten genituenak baino balorazio gutxiago egiteko.

Aldundiarekin harremanetan gaude etengabe, 2024an aterako den lehiaketa berriari begira. Apiriletik ekainera bitartean ateratzea espero dugu. Haiekin egindako azken bileretan, zerbitzua bideragarria izateko desgaitasun balorazioei eta egiaztapen teknikoei lotutako tarifak igo behar direla helarazi diegu.

IKERKETA ARLOAN, aurrekontuan sartutako diru sarreraren % 90 esleitu dira 2023. urtean.

Honela banatu da 2023. urterako aurrekontuan jasotako jarduera: % 4 kontratu pribatuetan, % 45 kontratu publikoetan, % 46 Hitzarmen Publikoan eta % 5 lehiakortasun funtsetan. Aurreko urteekin alderatuta, lehiakortasun alderdi horren zifrak nabarmen egin du behera, eta kontratu eta hitzarmen publikoen zenbatekoak, berriz, gora. Hala ere, eutsi egin nahi zaio arlo horretako jarduerari, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat eta Eusko Jaurlaritzarentzat interesgarriak diren proiektu jakin batzuetan sartu ahal izateko bidea baita.

Hauek dira 2023ko diru sarrera nagusiak, behin eta berriz fakturatzen direnak:

- Sendian: 124.000 euro
- PECEF prestakuntza: 103.748 euro
- Euskadi Lagunkoia: 360.000 euro
- Helduak Zabaltzen: 150.000 euro

Horiei LH Lehiakorrerako dirulaguntzak gehitu behar zaizkie. Batzuk urte anitzekoak dira, eta aurreko urteetatik datoz.

«Etxean bezala» proiektuak bere ikerketarekin jarraitzen du, eta 2023. urtea esku hartzeak izan duen intentsitaterik handienekoa izan da. Obrak egin dira Petran, Rezolan eta Berminghamen. Inbertsio horri lotutako zenbatekoa 1 milioi eurokoa da.

2023an, halaber, Aragoiko Gobernurako ikerketa proiektuan egin dugu lan (880.000 euro 16 hilabetetan). 194.643 euro aplikatu genituen 2022. urterako, 467.472 euro 2023. urterako eta 389.286 euro 2024rako. Proiektu horretan izan den atzerapenak desbideratzea eragin du 2023ko diru sarreretan.

• GASTUAK

Gastuen partidan, alderdi hauek nabarmendu behar ditugu batik bat:

PERTSONAL GASTUAK

- Emaiza kontuko sarreren % 75 hartzen du partida horrek.
- Partida hori da aurrekontuko zenbatekoaren aldean desbideratzerik handiena izan duena.

○ Hitzarmen kolektiboaren inguruko akordioa

2023. urtean, sindikatu guztiekin hainbat bilera egin ondoren, 2023ko hitzarmen kolektiboa berritzeko akordio batera iritsi ginen guztiekin, ELAren izan ezik. Akordioa langileen batzarretan berretsi zen, eta Matiak hitzarmen kolektiboa izan zuen 2023an. Hitzarmen kolektibo horretan, % 5,4ko igoera (KPIa) onartu zen kontzeptu guztietan, antzintasunean izan ezik. Matiak urteak daramatza langile guztien erosteko ahalmena bermatzen.

Ekaineko nominan, soldatak eguneratu ziren eta urtariletik maiatzera bitarteko ordaindu gabeko igoerari lotutako aldeak ordaindu ziren.

○ Lanbide kategoria nagusien presentziarik ezaren kostua

MF + GEROZERLAN	AURREKONTUA	ERREALA
Arretako laguntzaileak	% 13,68	% 16,36
Erizainak	% 2,83	% 8,88
Fisioterapeutak	% 4,92	% 4,30
Sukaldaria	% 5,35	% 13,64
Garbiketako langileak	% 7,60	% 11,72
Guztizko orokorra	% 8,53	% 12,19

Absentismo horren barruan, gaixotasun arruntagatiko absentiak eta ordaindutako baimenak (hitzarmenari lotutakoak) hartu ditugu kontuan. Aldi baterako ezintasunen batez besteko proportzioa % 76 da, baina desberdina da zentroaren arabera. Osasun arloan eta balorazioen arloan, adibidez, hitzarmenari/baimenei lotutako bajen proportzioa handiagoa da beste zentro batzuetan baino.

**Bajetako egun naturalak zenbatzen dira. Egun horietan sartu dira, gainera, beste enpresa batean istripua izan duten erakundeko langileak. Halaber, lan istripu bati lotutako birgaixotzeek eragindako baja egunak ere hartu dira kontuan.*

Estatuko laneko legeria eta laneko arriskuak prebenitzeko 31/1995 Legea aintzat hartuta, gertatzen diren lan istripuen % 100 jakinarazten du Matia Fundazioak: bai baja eragiten duten istripuak bai bajarik gabeko istripuak. Guri dagokigunez, horretarako gaitu den DELTA aplikazioa erabiltzen dugu Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari istripuen berri emateko. Laneko gaixotasunen kasuan, guztiak mutualitatearen bidez deklaratu dira, eskatzen den bezala.

4. Jarduerari lotutako gaixotasunen intzidentzia handia edo arrisku handia duten langileak

Gaixotasun profesionali dagokienez, erakundeko langile baten gaixotasun profesionala deklaratu da 2023an:

- 2023an, garbitzaile batek jasaten duen lesioari lotutako gaixotasun profesionala deklaratu da. Egiten dituen zereginekin zerikusia duen lesioa da, eta, beraz, kasuaren jarraipena egiten da eta prebentzio neurriak ezartzen dira lesio hori jasateko arriskua txikiagotzeko.
- 2022an, bi gaixotasun profesional deklaratu ziren. Kasu batean, agerraldi baten ondorioz zentroan gertatutako kutsapena izan zen. Bidezko protokoloa abian jarri eta agerraldia desagerrarazi zen. 2022an, zentroen garbiketa pixkanaka gure gain hartzen hasi ginen. Laguntzaile batek lesioa izan zuen lanpostuari lotutako zereginak egitean, eta lesio hori gaixotasun profesionaltzat hartzen da. Beraz, kasuaren jarraipena egiten da eta neurriak ezartzen dira gaixotasun hori jasateko arriskua desagerrarazi eta txikiagotzeko.
- 2021ean Gerozerlaneko sukaldeko langile baten gaixotasun profesionala deklaratu zen.
- 2020an, ez da lanbide gaixotasunik deklaratu erakundean.

Orain arte egon diren kasu guztietan, langileak babesteko neurri egokiak hartu dira, eta sukaldearen kasuan, hobekuntza ergonomiko eta antolamenduzkoak egin dira karga muskulueskeletikoaren arriskua txikitzeko.

Amaitzeko, azpimarratu behar da Matia Fundazioan ez dugula jarduerari lotutako gaixotasunen arrisku handirik edo intzidentzia handirik.

5. Sindikatuekiko akordio formaletan aztertutako osasun eta segurtasun gaiak

Matiak lan hitzarmen bat du indarrean, eta bertan Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea betetzeko konpromisoa jasotzen da. Plantillaren % 100 hitzarmen kolektibo bati lotuta dago.

17. Giza eskubideak

Matia Gipuzkoan aritzen da; tokiko erakundea gara. Europar Batasunaren eremuan dihardugunez, Nazio Batuen giza eskubideen gutunean jasotako giza eskubideak beteko ditugula berma dezakegu.

Pertsona guztien (langileen, boluntarioen, erabiltzaileen eta beraien senitartekoen) eskubideak eta betebeharrak zehazten dituen bizikidetza gidaliburua landu dugu. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Euskadiko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen betebeharrak eta eskubideen gutuna onartzen duen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan jasotako eskubideak hartu ditugu eskuliburua idazteko oinarri gisa; hau da:

- Duintasunerako eskubidea: inolako diskriminaziorik ez jasateko eta tratu duina jasotzeko oinarritzko eskubideak bermatzeaz gain, arreta pertsonalizatua ere gehitu dugu atal honetan. Erabiltzailearen arreta eta bizitza plana prestatzen dugu horretarako, aldian-aldian berrikusten dena.
- Pribatutasun eskubidea.
- Autodeterminazio eskubidea.
- Autonomia funtzionalerako eskubidea.
- Aukeratzeko eskubidea.
- Gogobetetzeko eta pertsona gisa errealizatzeko eskubidea.
- Norberaren eskubideak ezagutu eta defendatzeko eskubidea.

Betebeharrak ere jasotzen ditu gidaliburuak:

- Bizikidetza arauak betetzea.
- Pertsonak eta instalazioak errespetatzea.
- Anomaliak eta irregularitasunak jakinaraztea.

Alabaina, urrats bat gehiago ere egin dugu, erakunde gisa, adinekoen ongizatean jartzen baitugu indarra. Eta ikuspegia zabaldu eta langileen ongizatea ere hartzen dugu aintzat, erabiltzaileei tratu ona eman nahi izatekotan, ezinbestekoa baita langileon ongizatea ere bermatzea.

Gogoeta horren ondorioz, lan egiteko eta harremanetan jartzeko modua egokitzeko aukera emango digun kultura aldaketa jorratu dugu, pertsonarengan ardaztutako arreta ereduaren bitartez.

- **Langileei laguntzeko neurriak**

Matiak erakundean ari diren langileei laguntzeko ahalegina egiten du, beraien egunerokoa ahalik eta errazena izan dadin.

Lan hitzarmenean jasota dauden laguntza neurriak erabiltzen dira.

Matian lan egiten duten pertsonak egunero jasaten dituzten onura sozialak dira.

- **Haurren lana eta nahitaezko lana arbuiatzea**

Matiako langile guztiak Gipuzkoan aritzen dira; bertako legeriak argi eta garbi zedarritzen dituen enplegarritasunaren mugak, zorrotz zigortzen du muga horiek haustea. Gaur egun, Matian lan egiten duten pertsona guztiak 18 urtetik gorakoak dira.

- **Jazarpena**

Langileren batek beste langile baten aldetik indarkeria edo jazarpena jasaten badu, protokolo zehatz bat jartzen da abian: kasuaren berri duen pertsonak edo kaltetutako pertsonak Segurtasun eta Osasun Batzordeari ematen dio gertatuaren berri, dela prebentzioko ordezkarien bidez, dela langileen ordezkarien bidez.

Horretarako, ordea, jazarpenak 6 hilabetez iraun behar du, gutxienez, eta pertsona baten kontra behin eta berriro egin behar da.

Susmoa dagoen gehienetan, arduradunaren edo taldearen esku hartzearekin konpontzen dira zerbitzuan bertan. Kaltetuek, langileen ordezkariak edo prebentzioko ordezkariak (sindikatuak) har dezakete parte bileran.

Orain arte hainbat gorabehera izan ditugu, eta Laneko Arriskuen Prebentzioari helarazi dizkiogu, iker ditzaten. Horietako bat jazarpena dela ondorioztatu dugu, eta dagozkion neurriak hartu.

19. artikuluko prestakuntzetan azaltzen da nola antolatzen den prebentzioa Matian, eta zer ordezkariak organo dauden: segurtasun eta osasun batzordeak, prebentzioko delegatuak, langileen ordezkariak (sindikalak), baita zentro eta zerbitzuetako arduradunak ere, Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuaz gain.

Jazarpen protokoloa dagoela eta beharrezkoa ikusiz gero erabili egin daitekeela ere azaltzen da.

PROTOKOLOA. Lanean debekatuta dauden portaerak, jazarpen morala direlako

- **Agintekeria**
 - Langilea etengabe jardunik gabe edo inkomunikatuta uztea, horretarako inolako arrazoirik egon gabe.
 - Langileari esleitu zaizkion bitartekoekin bete ezin diren aginduak ematea.
 - Alferrikako lanak, balio produktiborik ez dutenak, eginaraztea.
 - Enpresaren aurkako kexak, salaketak edo eskariak aurkeztu dituzten langileen edo lagundu dietenen aurkako errepresaliak.
- **Tratu iraingarria**
 - Langilea behin eta berriro iraintzea edo gutxiestea.
 - Beste batzuen aurrean behin eta berriro errieta egitea.
 - Lanari edo bizitza pribatuari buruzko zurrumurru faltsuak zabaltzea.
- **Jazarpen diskriminatzailea (TRLISOSen 8.13 bis artikulua), honako hauen ondorioz:**
 - Biktimaren sinesmen politiko edo erlijiosoen ondorioz.
 - Arrazoi sindikalen ondorioz.
 - Sexuaren edo sexu orientazioaren ondorioz.
 - Emakumeak haurdun egotearen edo ama izatearen ondorioz.
 - Adinaren edo egoera zibilaren ondorioz.
 - Jatorriaren, etniaren edo nazionalitatearen ondorioz.
 - Desgaitasunaren ondorioz.
- **Jazarpen moralak ez direnak (baina bestelako arau hausteak izan daitezkeenak)**
 - Lan baldintzak nabarmen aldatzea, arrazoirik gabe eta legez ezarritako prozedurari jarraitu gabe.
 - Aldian behingo ekintza diskriminatzaileak (TRLISOSen 8.12 artikulua).
 - Lanaldia luzatzeko edo lan jakin batzuk egiteko presioak.
 - Langile batzuen kontrako bereizkuntzarik gabeko portaerak.
 - Gatazkak grebetan, protestetan eta abarretan.
 - Pertsona batzuek elkarren artean koordinatu gabe egindako irainak.
 - Lana ondo ez egiteagatik, deskalifikatu gabe kargu hartzea.
 - Gatazka pertsonal eta sindikalak.

Berdintasun Plana

Matiak berariaz adierazi du enpresa osatzen duten erakunde guztietako emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna —benetakoa eta eraginkorra— sustatzeko borondate irmoa.

Matiaren Berdintasun Plana 2022ko abenduan negoziatu eta onartu zen, eskatutako izapide ofizialei jarraikiz. Matia osatzen duten erakunde guztiak biltzen ditu eta 2023-2026 aldiko lan ildoak ezartzen. Planaren helburua da jarduteko metodologia bat ezartzea, denboran egonkorrak izango diren eta kudeaketan integratuta egongo diren barne prozesuak sortzeko.

Aurten, 2023-2026 aldirako ibilbide orria abian jartzen hasi gara, erakundeko enpresa batzordeko kideekin batera, denon lanarekin emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkor eta benetakoa bermatu eta inolako lan diskriminaziorik izan ez dezagun.

- **Lanaldiaren iraupena eta hura egokitze neurriak:** adingabeak zaintzeko lanaldia murriztea eskatzen dutenei urteko egutegia murrizteko aukera ematea, familia bizitzaren premiak aurretiaz planifikatu ahal izateko.
- **Trebakuntza neurriak:** emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza berezia ematea langileen kudeaketaren alorrean ari diren pertsona guztiei; eszedentzian dauden pertsonen prestakuntzarako bidea erraztea; familia kontziliazioari lotutako egoeretan jardunaldia murrizteko aukera eskaintzea; hizkera egokia erabiltzeko kultura sustatzea eta lanpostu zehatz bat genero jakin batekin lotzea dakarten izen guztiak baztertzea eta hizkera inklusibo batera jotzea.
- **Sustapenari eta ordainsariari lotutako neurriak:** lan hitzarmen propioa ezarriko dela bermatzea, generoagatiko, arrazagatiko edo erlijioagatiko diskriminazio guztiak baztertuta; gizon edo emakumeak gutxi ordezkaturik dauden taldeetan (hala arreta zuzenekoetan nola administraziokoetan) lanbide sustapenerako deialdietara aurkez daitezen bultzatzea; zerbitzu guztietan generoaren araberako osaera orekatua egoteko neurriak ezartzea eta, langile berriak hautatu behar direnean, meritu eta kualifikazio berdina egonez gero, zerbitzuan presentzia txikiena duen sexua lehenesteko irizpidea erabiltzea.
- **Pertsonen bizitza pertsonala eta familia bateragarri egiteko neurriak:** lan hitzarmen propioa eta bertan zehaztutako gizarte hobekuntzak ezarriko direla bermatzea; alegia:
 - Ezkontzeagatiko edo izatezko bikotea egiteagatiko baimena.
 - Bikotekidea erditzeagatiko baimena.
 - Bikotekidearen, seme-alaben, gurasoen, neba-arreben, biloben eta aitona-amonen gaixotasun larriagatiko baimena.

- Ezkontide/bikotekidearen, seme-alaben, gurasoen eta neba-arreben heriotzagatiko baimena.
- Neba-arreben eta seme-alaben ezkontzagatiko baimena.
- Ohiko etxebizitza aldatzeagatiko baimena.
- Gizarte Segurantzako espezialistarengana joateko behar den denborarako baimena.
- Norberaren eginbeharretarako baimena.
- Edoskitze aldian, ordubeteko edo horren pareko atsedenaldia lanaldi bakoitzean, haurrak urtebete izan arte. Baimen hori amak nahiz aitak erabil dezake, biak ala biak lanean ari badira.
- Semea edo alaba zaintzeko eszedentzia, adingabeak 3 urte bete arte — lanpostua gordeko da eszedentziaren indarraldi osoan—.
- Azterketak egiteko lanaldirako baimena.
- 1 eta 5 hilabete arteko soldatarik gabeko baimena.
- 5 urtera arteko borondatezko eszedentzia, lehenengo 3 urteetan lanpostua erreserbatuta.
- Lanaldia adostutako portzentajearen murrizteko eskubidea, jatorrizko lan kontratua aldatu gabe.
- «Urte sabatikoaren zikloa» ezartzeko aukera, honakoaren arabera: 5 urteko epean soldataren % 80 jasoko du langileak, lehenengo 4 urteetan lanaldiaren % 100 eginda eta 5. urtean lanetik libre geratuta.
- Hala eskatzen duten 55 urtetik gorako langileek lehentasuna izango dute gaueko txandarik gabeko lanpostu libreak eskuratzeko.
- **Sexua dela eta lanean egiten den jazarpenaren aurkako prebentzio neurriak:**
«Jazarpen kasuetan jarduteko prozedura», «Arrisku psikosozialak saihesteko prozedura: gatazken kudeaketa portaera erasokorren aurrean», eta «Balorazio zerbitzuan indarkeria eta erasoak prebenitzeko eta halakoak gertatzen direnean jarduteko neurriak» bete egingo direla bermatzea, Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordearen bitartez.

Langileei laguntzeko neurriak

Matiak erakundean ari diren langileei laguntzeko ahalegina egiten du, beraien egunerokoa ahalik eta errazena izan dadin. Lan hitzarmenean jasota dauden laguntza neurriak erabiltzen dira.

Matian lan egiten duten pertsonen egunerokoari eragiten dioten gizarte hobekuntzak dira.

- Ezkontzeagatik.
- Emaztea/bikotekidea erditzeagatik.
- Ezkontidearen/bikotekidearen, seme-alaben, gurasoen, anai-arreben, biloben edo aitona-amonen gaixotasun larriagatik.

- Ezkontide/bikotekidearen, seme-alaben, gurasoen eta neba-arreben heriotzagatiko baimena.
- Neba-arreben, seme-alaben edo aitaren/amaren ezkontzagatiko baimena.
- Ohiko etxebizitzaz aldatzeagatik: egutegiko 1 egun.
- Langileak Gizarte Segurantzako espezialisten mediku kontsultara joateko behar duen denbora gehienez 16 ordukoa izango da urtean. Ezkontideari edo ezkontza ahaidetasunezko lehen mailako ahaideei laguntzea sartzen da.
- Norberaren eginbeharretarako.
- Edoskitzea: 1 orduko atsedenaldia lanaldi bakoitzean, edo horren proportzionala lehenengo 12 hilabeteetan.
- Adingabea zaintzeko eszedentzia.
- Matian garatzen dituzten lanbide jardueretako berezko ikasketetarako ikastetxe ofizialetan azterketak egiteko baimena.
- Soldatarik gabeko baimena eskatzen duten langileentzat, 1-5 hilabeteko aldirako.
- Langileak lanaldia murrizteko eskubidea izango du, adostutako ehunekoan, jatorrizko lan kontratua aldatu gabe.
- Borondatez, eskatzen duen langileari «urte sabatikoaren zikloa» aplikatuko zaio.
- Eskatzen duten 55 urtetik gorako langileek lehentasuna izango dute gaueko txandarik gabeko lanpostu hutsak betetzeko.

Lanbide garapenaren eredua

2003. urteaz geroztik, jarduera eta garapen profesionala gaitasunen arabera ebaluatzeko eredua dauka Matia Fundazioak, azken urteetan eguneratuz joan dena. Azken eguneraketa 2014an egin zen, ebaluazio sistema errazagoa eta bizkorragoa zehazteko.

Hala ere, Matian azken urteetan arreta ereduari dagokionez izan den eraldaketa eta horrek erakundearen rolei lotutako funtzioei dagokienez dakarrena kontuan hartuta, arloan aditua den erakunde batekin proiektu bati ekitea erabaki da, rol profesionalen berrikuspen integrala egiteko eta beharrezkoak diren funtzioak eta gaitasunak definitzeko. Horri lotuta, garapen profesionalean eta jardunaren ebaluazioan lagunduko diguten tresna berriak definituko dira.

- **Dibertsitatea eta integrazioa**

Matia hasiera-hasieratik dago dibertsitate funtzionala duten pertsonekin sentsibilizatuta. 2023. urtearen amaieran, 31 dira Matia Fundazioan, Gerozerlanen edo Goxaran desgaitasun edo minusbaliotasunen batekin kontratatuta egon diren pertsonak.

50 langile baino gehiago dituzten erakunde guztietan bezala, desgaitasuna duten pertsonak langileen % 2 izan behar dute, gutxienez, Matia Fundazioan, Gerozerlanen eta Goxaran. Matia Fundazioak eta Gerozerlanek indarrean dagoen legeria betetzen dute.

Matia Institutuak eta Zaintzatarik 50 langile baino gutxiago dituztenez, ez dute betebeharr hori.

Desgaitasunen bat duten langileak taldearen arabera, 2023an (405-1)

		Emakumeak			Gizonak			Globala 2023
		< 30 urte	30-49 urte	> 50 urte	< 30 urte	30-49 urte	> 50 urte	
Matia Fundazioa	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	-	-	-	-	-	-
	Gainerako pertsonak	-	4	11	-	1	6	22

		Emakumeak			Gizonak			Globala 2022
		< 30 urte	30-49 urte	> 50 urte	< 30 urte	30-49 urte	> 50 urte	
Gerozerlan	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	-	-	-	-	-	-
	Gainerako pertsonak	0	3	2	-	1	0	6
Goxara	CEMI	-	-	-	-	-	-	-
	Arduradunen foroa	-	-	-	-	-	-	-
	Gainerako pertsonak	0	1	2	-	0	0	3
Zaintzadari	CEMI							
	Arduradunen foroa							
	Gainerako pertsonak			1		1		2
Matia Enea	CEMI							
	Arduradunen foroa							
	Gainerako pertsonak							

*Adina 2023ko abenduaren 31n.

- **Deskonexio digitaleko politika**

Gaur egun, Matiako Pertsonak Kudeatzeko taldea desconexio digitaleko politika bat ari da lantzen, desconexio horretarako eskubidea bermatzeko, atsedeen egunetan, baimenetan zein oporretan.

Politika hori langileen ordezkariak onartu behar badute ere, dagoeneko lantzen ari garen deskonexio digitaleko politikaren zirriborroa erantsi dugu.

Azken hamarkadetan gertatutako aldaketa teknologikoek beste aldaketa batzuk eragin dituzte lan harremanen esparruan.

Ordenagailuak, telefono mugikorak, tabletak eta abar gure lan bizitzaren parte dira, eta eragina dute enpresen eta langileen arteko lan harremanetan. Behar bezala erabiltzen ez badira, arazoak sor ditzakete langileen osasunean (neke informatikoa, *burnout* sindromea, estresa eta abar).

Hori dela eta, garrantzitsua da lan harremanetan esku hartzen duten elementu horien guztien kudeaketa egokia ezartzea.

Testuinguru horretan, deskonexio digitalerako eskubidea lanaldiari eta langileen betebeharrei muga batzuk ezartzeko beharraren ondorioz sortu da, atsedena ahalbidetzeko helburuarekin. Gainera, beharrezkoa da bizitza pertsonalaren eta lanaren kontziliazioa bideragarria izan dadin. Era horretan, indartu egingo dira arlo horretan araututako neurriak.

Matiako Zuzendaritza sentibilizatuta dago egoera horiekin. Horregatik, deskonexio digitalerako protokoloa onartzea erabaki dugu, langileen legezko ordezkariak kontsulta egin ondoren. Protokolo horrek langileek deskonexio digitalerako eta lanaldia amaitu ondorengo atsedenaldirako duten eskubidea bermatuko du.

Matia osatzen duten sozietateetako langileek deskonexio digitalerako eskubidea izango dute, enpresan legez edo hitzarmen bidez ezarritako lan ordutegitik kanpo haien atsedenaldia, baimenak edo oporrak (baita norberaren edo familiaren intimitatea ere) errespetatzen direla bermatzeko.

1. Lege esparrua

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa indarrean jartzean, beste lege xedapen batzuen artean, Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen da, artikulua berria (20 bis artikulua) txertatzearen bidez. Horren ondorioz, langileen eskubide berri bat arautu da.

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoaren 88. artikulua lan esparruko deskonexio digitalerako eskubidea bermatzen du.

- **Deskonexio digitalerako eskubidea lan esparruan**
 - a. Langileek eta enplegatu publikoek deskonexio digitalerako eskubidea izango dute, legez edo hitzarmen bidez ezarritako lanaldiaz kanpo haien atsedenaldia, baimenak eta oporrak errespetatu daitezkeen, bai eta norberaren eta familiaren intimitatea errespetatu dadin ere.

- b. Eskubide hau egikaritzeko modalitateak lan harremanen nolakotasunaren eta xedearen arabera izango dira; familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko eskubidea indartuko dute, eta negozio kolektiboan ezarritakoaren mende egongo dira edo, halakorik ezean, enpresaren eta langileen ordezkarien artean adostutakoaren mende.
- c. Enplegatzaileak, alde aurretik langileen ordezkariari entzunda, langileei – baita zuzendaritza postuetan daudenei ere – zuzendutako barne politika bat landuko du, zeinetan definituko diren deskonexio eskubidea egikaritzeko modalitateak, batetik, eta neke informatiborako arriskua ekiditeko tresna teknologikoak zentzuz erabiltzeko prestakuntza eta sensibilizaziorako ekintzak, bestetik. Bereziki zainduko da deskonexio digitalerako eskubidea, lana oso-osorik edo partez urrutitik egiten den kasuetan, baita tresna teknologikoak laneko helburuekin bere bizitokian erabiltzan enpleguaren kasuan ere.

- **Protokoloaren aplikazio esparrua**

Protokolo honetan jasotako neurrien hartzaileak Matia osatzen duten sozietateetako langile guztiak izango dira, talde eta kategoria profesionala edozein izanik ere, akordio bidez lana osorik edo zati batean urrutetik egitea ezarrita duten pertsonak eta erakundearen barruan zuzendaritza postuak dituzten pertsonak barne hartuta.

- **Neurriak**

Eskubide hori betetzen dela bermatzeko eta salbuespenak arautzeko, neurri hauek erabaki dira:

- a. Langileek lanalditik kanpo eta atsedendietan, baimenetan, lizentzietan edo oportetan gailu digitalei ez erantzuteko duten eskubidea aitortzen da, hurrengo c) puntuan ezarritako premiazko arrazoi justifikatuak daudenean izan ezik.
- b. Oro har, gai profesionali buruzko komunikazioak lanaldiaren barruan egingo dira. Hortaz, c) puntuan ezarritako larrialdi egoeren kasuan izan ezik, ez da telefono deirik egingo eta ez da mezu elektronikorik edo beste edozein motatako mezurik bidaliko lanalditik kanpo.
- c. Langileek ezein komunikaziori ez erantzuteko eskubidea dute eguneko lanaldia amaitu ondoren, salbuespen hauekin:
 - i. Justifikatutako salbuespenezko inguruabarrak daudenean, edota pertsonen arrisku larria edo enpresei kalte handia eragin diezaieketen kasuak direnean eta haien premia dela eta neurri bereziak hartu edo berehalako erantzunak eman behar direnean.

- ii. Guardiak egiten dituzten langileak.
 - iii. Enpresaren hitzarmenean aurreikusitakoaren arabera prestasun bat itunduta duten pertsonak, lan errekerimendua jakinarazi ahal izateko, aldizkako langile finkoei deitzen zaien bezala.
- d. Era berean, lan denbora hobeto kudeatzeko, neurri hauek hartuko dira:
- i. Absentzia aldietan erantzun automatikoak programatzea, noiz ez den egongo adierazita eta absentzia horretan zereginak esleitu zaizkion pertsonaren helbidea edo harremanetarako datuak jakinarazita.
 - ii. Langile bakoitzaren lanalditik kanpoko prestakuntza deialdiak, bilerak, bideokonferentziak, aurkezpenak, informazioa eta abar saihestea.
 - iii. Aurreko paragrafoan adierazitako saioetarako deialdiak behar besteko aurrerapenaz egitea, pertsonak beren lanaldia planifikatu ahal izan dezaten.
 - iv. Deialdietan hasierako eta amaierako ordua eta aztertu beharreko dokumentazio guztia adieraziko dira, landu beharreko gaiak aldezturik ikusi eta aztertu ahal izateko eta bilerak ezarritakoa baino gehiago ez luzatzeko.

Deskonexio digitalerako eta lan deskonexiorako eskubidea eraginkorra izan dadin, eskubide hori baliatzen duten pertsonen inolako zehapenik ezarriko ez zaiela eta jardunaren ebaluazioetan eta mailaz igotzeko aukeretan kalterik eragingo ez zaiela bermatuko da.

Neurri horien osagarri gisa, eskubide hori zabaldu, garatu eta/edo hobetuko duten jarduteko protokoloak ezarri ahal izango dira enpresaren esparruan.

18. Ustelkeria eta eroskeria

Gure sektorean pertsonekin harremanetan egiten dugu lan, maila guztietan; horregatik, oso garrantzitsua da erabiltzaileei eta beraien familiei eragin liezaiekeen iruzurrezko portaerarik ez egotea. Ustelkeriaren eta eroskeriaren harira hiru talde garrantzitsu bereizten ditugu:

- Egunero erabiltzaileekin lan egiten duten langile eta boluntarioak. Talde horretan, portaera txarrekin egoera ahulean dauden pertsonen eragingo liekete zuzenean. Kontuan izan behar dugu egoitzetako eta ospitaleko egoiliarren adinekoak izaten direla eta mendekotasun maila altua izaten dutela. Baten batzuek demetzia dute eta ezin dute bereizi langilearen edo boluntarioaren aldetik portaera desagokirik jasotzen duten. Prebentzio gisa, pertsona guztien (langileen, boluntarioen, erabiltzaileen eta beraien senitartekoen) eskubideak eta betebeharrak zehazten dituen bizikidetzaren gidaliburua landu dugu. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea eta Euskadiko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen betebeharrak eta eskubideen gutuna onartzen duen apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan jasotako eskubideak hartu ditugu gidaliburu horren oinarri gisa.
- Erakundearen administrazio kudeaketaz arduratzen diren langileak: kontabilitatea, erosketak, azpiegiturak, giza baliabideak, informatika eta abar. Talde horrek bereziki sentikorrak diren datuak eta gaizki erabil daitezkeen informazioa lantzen ditu. Esparru horretan lege hausterik gertatzeko arriskuak gutxitzeko barneko lan politikak jorratu ditugu. Neurri horietako asko zigor penalak prebenitzeko eskuliburuan edo kontrol mekanismo gisa jasota daude. Aipagarriak dira, besteak beste, hornitzaileen kudeaketa integralerako prozedura, erabaki garrantzitsuak hartzeko pertsona askoren onarpena eskatzen duen botere sistema zorrotza, kanpoko auditoretzak eta kanpoko aholkularitza, zerga gaietarako. Auditorien eta Izendapenen Batzordea arduratzen da horretaz guztiaz; izan ere, erakundearen jardunari lotutako ikuskaritza lana, informazioa eta proposamenak egiteko lana betetzen du.
- Erakundeko zuzendaritza organoa eta hura ikuskatzen duen Patronatua. Talde horrentzat (eta gainerako bientzat ere bai), arrisku penalak prebenitzeko eskuliburuaren prestatu du Fundazioak.

Zigor arloko eskuliburuaren helburua da delituak eraginkortasunez prebenitzea, eta, bertan, delituen aurka borrokatzeko neurriak zehazten dira, **kapitalak zuzitzea** barne.

Hartara, langileei eta erakundeetako kideei delituak prebenitzen laguntzen dien mekanismo gisa aritzen den plan bat dugu aurrean; izan ere, lege zigor daitezkeen jokabideak eta prozedurak (norberarenak nahiz hirugarrenenak, erakundearen edo jardunean gertatzen direnak) identifikatuko dituen mekanismoa eskaintzen die.

Era berean, arrisku penala dakarren egoera baten aurrean nola jokatu zehazten laguntzen die erakundeei, legeria eta egoera prozesala aintzat hartuta, beren interesen defentsa bermatzeko.

Eta, azkenik, indarrean dagoen legeria benetan edo beraien ustez urratu egin dela antzematen dutenean, egoera horiek guztiak ebazteko eta tramitatzeeko kanal egokia ere eskaintzen die.

Eskuliburua egiteko, erakundean gerta litezkeen arrisku penalak identifikatzeko aukera eman duen metodoa erabili da. Horretarako, Fundazioaren ohiko funtzionamendu normala aztertu da: ohiko jokabideak, eguneroko jarduna betetzeko prozedurak eta barne araudia eta legeak erakundearen jardun eremuan agintzen dituen arauak betetzeko protokoloak. Hartara, definitu eta zehaztu egin dira, besteak beste, erakundearen jardura eta antolamendu ereduan erabiltzen diren prozedurak.

Behin erabiltzen diren prozedurak zehaztu ondoren, erakunde bakoitzean dauden arrisku penalak identifikatu dira, eta gertatzeko aukeraren arabera sailkatu. Hala, erakunde bakoitzari egokitutako arrisku mapa lortu dugu. Identifikazioa egiteko ikuspegi bikoitza erabili dugu: edozein erakundek berezkoak dituen arriskuak batetik, eta sektoreari eta jardura ereduari lotutako arriskuak bestetik. Fundazioak ibilbide sendoa du gizarte erantzukizunean eta enpresako eta laneko etikan; hartara, onartutako erantzukizun korporatiboari buruzko dokumentazioa eta informazioa ez ezik, laneko arriskuen planean, ingurumen konpromisoetan eta ISO ziurtagirietan zehaztutako informazioa ere bildu da. Izan ere, erakundeetan dagoeneko txertatuta dauden ekintza mekanismoak dira, baina errefortzu neurriak ezarri zaizkie, prebentzio eredia eraginkorragoa izan dadin.

Illo beretik, pertsona juridikoei beraierengan eragin lezaketan lege urraketak jakinarazteko salaketa bide bat gaitu da, beharrezko egiaztapenak edo ikerketak egin eta neurri egokiak har ditzaten.

Hona hemen gertatzeko arriskurik handiena duten delitu penalak:

- Sekretuak jakinaraztea eta informazio informatikoa bidegabe erabiltzea.
- Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituak.
- Langileen eskubideen aurkako delituak.

Orain arte ez da ustelkeria kasurik egon erakundean eta, beraz, ez da inoiz langilerik kaleratu ustelkeria dela eta. Era berean, kanpoko eragile batek ere ez du inoiz erakundea salatu ustelkeria kasuengatik.

Fundazioak delituak egitea saihesteko mekanismoak ditu indarrean:

- Segurtasun agiriaren erabiltzaileen eginkizunei eta betebeharrei buruzko dosierra.
- Etika eta jokabide kodea.
- Lan arriskuen prebentzio plana.
- Erakundearen kontuen auditoretza.

- Datuen babeserako segurtasun eskuliburua.
- Aldian aldiko auditoretzak zentro guztietan.
- Gobernu korporatiboaren urteko txostena.

Legearen arabera beharrezkoa denez arriskuak eta eskuliburuaren urraketak jakinaraztea, salaketa kanal bat sortu dugu, eskuliburuaren edukia nahiz indarrean dagoen araudia urratu dela uste edo antzeman duen edonork salaketa jar dezan. Era berean, eskuliburuari eta haren betetzeari edo interpretazioari buruzko zalantzak eta iradokizunak aurkezteko ere erabili ahal izango da kanala.

Langileen eta hirugarrenen arteko lankidetza errazte aldera, salaketa kanalaren erabilgarritasuna izango da oinarritzko printzipioa. Halatan, erabiltzeko aukera bat baino gehiago ahalbidetu da eta salaketa jartzen duten pertsonen konfidentzialtasuna bermatuko da betiere. Langileek bestelako komunikazio bide informalagoak ere badituzte eskura, hala nola hierarkia edota giza baliabideen departamentuaren edo osasun eta segurtasun batzordearen aurrean aurkezteko aukera.

Azken urteetan eta orain arte ez da inolako salaketarik jaso. Gaiak duen garrantzia kontuan hartuta, horren inguruan sentsibilizatzeko eta ezagutzera emateko kanpaina jarriko dugu abian.

Prestakuntza hori talde hauentzat egin zen:

1. Zerbitzu zentraletako langileak: bilera bat egin genuen eskuliburuaren oinarritzko ezaugarriak eta puntu garrantzitsuenak azaltzeko. Gure jarduerak berrikusi genituen, ikusteko non zeuden arriskurik handienak eta nola antzeman eta salatu.
2. Patronatua eta zuzendaritza taldea: eskuliburua bidali, irakurri eta baliozkotzea. Patronatuaren bileretako batean, gaiari buruzko monografiko txiki bat egin zen, zalantzak edo ekarpenak egon zitezkeelakoan.

Sartu berri diren langileen kasuan, prestakuntza Matia Eskola hezkuntza plataformaren bidez egin da 2023an.

Jardunean zeuden gainerako langileen kasuan, berriz, prestakuntza 2024an emango da, Matia Eskola hezkuntza plataformaren bidez.

• **Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordea**

Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordea («Matia Fundazioko, Matia Institutuko, Hurkoa Fundazioko, Hurkoa-Zainduz Fundazioko eta Gerozerlaneko GEHEB») Gipuzkoako Foru Aldundiak 2008ko ekainaren 30az geroztik egiaztatutako organoa da (ekainaren 12ko 46/2007 Foru Dekretuari jarraikiz). Matiarekin lotuta dauden erakunde guztiei ematen die estaldura.

Hainbat erakundetako 12 profesionalen, boluntarioen eta hainbat diziplinako pertsonen osatuta dago. Diziplina horien artean, medikuntza, psikologia, zuzenbidea, terapia okupazionala, administrazioa, gizarte lana, erizaintza, klinikako laguntzailea eta ikerketa aipa daitezke.

Batzordea aholku emailea, independentea eta akonfesionala da. Hauek dira haren funtzio nagusiak:

Laguntza prozesuan inplikaturako profesionalen, erabiltzaileen eta esparru soziosanitarioko erakundeen arteko gatazka etikoak sortzen dituzten egoeretan hartu beharreko erabakiak aztertu, aholkatu eta erraztea.

1. Laguntza prozesuan inplikaturako profesionalen, erabiltzaileen eta esparru soziosanitarioko erakundeen arteko gatazka etikoak sortzen dituzten egoeretan hartu beharreko erabakiak aztertu, aholkatu eta erraztea.
2. Eztabaida metodoan oinarritutako jardura protokoloak lantzea eta berrikustea, gatazka etikoak sortzen diren egoerak tratatzeko.
3. Erakundeei eta zentro soziosanitarioei gatazka etikoak sortzen diren egoeretan laguntzea.
4. Batzordeak ordezkatzeko dituen erakundeetako profesionalen bioetikako prestakuntza eta beste erakunde batzuek eskaturako prestakuntzetan laguntzea.
5. Kideen bioetikako prestakuntza jarraitua.
6. Bioetikarekin zerikusia duten mota orotako jarduerak egitea, esparru soziosanitarioko profesionalen artean zein erabiltzaileen eta erakundeen artean hedatzeko.
7. Kideei bioetikaren inguruan antolatzen diren eta interesa izan dezaketen jardura guztien berri ematea.
8. Gizarte ikerketako proiektuak aztertzea, aholkularitza ematea eta, dagokionean, onartzea.

○ Harremanetan jartzea eta eskaerak izapidetzea

Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordeari kontsultak egin ahal izango dizkiote Gipuzkoako zerbitzu soziosanitarioetako profesionalak, erabiltzaileak, haien senideak, legezko ordezkariak, kasuan interes legítimoak egiaztatzen duten beste batzuek eta Gipuzkoako zerbitzu soziosanitarioetako zuzendaritza organoak, bide hauen bidez:

- Helbide elektronikoa: CEIS@matia.eus.
- Edozein kide; telefonoak: 943 224 643 / 620 436 059.
- Presentziala: Pinu bidea 35, Donostia.
- 2023an, izapideak Matiaaren webguneko atal baten bitartez egiteko aukera gaitu da.

Eskaera jaso ondoren, Etika Batzordeak kasua baloratu eta aztertuko du, eta deliberazioan eta bere aholkularitza funtzioan laguntzeko jarraitu beharreko prozedura ezarriko du.

Kasua premiazkoa bada, Batzordeko pertsona bat eskatzailearen arduradun eta solaskide izendatuko da, harekin harremanetan jarriko da eta jarraitu beharreko prozedura behar bezala programatuko du.

Gizartean Esku Hartzeko Etika Batzordeak, bere esku hartzea amaitu ondoren eta bidezkoa denean, gomendioei buruzko txosten bat egingo du eta eskatzaileari baino ez dio emango. Prozedura eta txostenak konfidentzialak izango dira.

○ **2023ko jarduera**

Bilera kopurua	9
Eskaera kopurua	1
Eztabaidatutako etika kasuen kopurua	1
Berrikusitako ikerketa proiektuen kopurua	5
Materialen kopurua	6 (3 amaituta, 3 aribidean)

Jasotako prestakuntza	
Ordu kopurua	20
Batzordeko kideen kopurua	4

Emandako prestakuntza	
Ordu kopurua	20
Parte hartzaileen kopurua	4
Ikastaro kopurua	1
Batzordeko kide diren prestatzaileen kopurua	1

19. Ingurumenari lotutako gaiak

Kudeaketa politika integratuak zehazten du Matiak ingurumenaren alde duen konpromisoa. Izan ere, klimaren aldeko ekintzari lotutako garapen jasangarrirako helburua lortzeko, eta, ildo horretan, ingurumena zaintzeko neurri eta sistema egokiak indartzeko eta gure jarduerak sortzen dituen edo sor litzakeen ingurumen inpaktuak murrizteko konpromisoa hartu du erakundeak. Gainera, ingurumeneko arduraduna den teknikari bat dugu, eta pertsonak motibatzen apustua egiten dugu, kalitatea, arriskuen prebentzioa eta ingurumena sustatzeko tresna egokia delakoan.

Gure jardueraren ondorioz sortzen diren ingurumen alderdiak (zuzenak eta zeharkakoak, egoera normalen, egoera anormalen eta larrialdi egoeren ondoriozkoak) kategoria hauetan sailka ditzakegu:

- Kontsumo energetikoak eta lehengaienak, baliabideen izaeraren arabera.
- Atmosferara egindako isurketak, isurtze fokuen arabera (biomasa eta ibilgailuak).
- Hondakin uren isurketak, kolektorerara isurtzeko puntuaren arabera.
- Sortutako hondakinak (geldoak, hiri hondakin solidoak eta arriskutsuak).
- Ingurumen zarata edo kutsadura akustikoa: ingurunean pertsonen enbarazu, arrisku edo kalte egiten dieten zaratak edo bibrazioak egotea.
- Zerbitzu hornitzaileen ingurumen portaera.

Duten izaera dela eta, gure jarduerak ez dakarte ingurumen arrisku larririk, eta **gure zentroak ez daude eremu babestuetan kokatuta**, baina arriskutzat har daitezkeen intzidentziak identifikatu eta kontrolatu egiten dira. Aipaturiko aldiak ez dugu inolako isunik jaso ingurumenari lotutako legeak edo araudia urratzeagatik. Era berean, ez dugu hirugarrenen erreklamaziorik jaso kutsaduragatik. Horretarako, Fundazioak erantzukizun zibila estaltzen duen bermea du (150.000 €-ra bitartekoa), indarrean dagoen legeriari jarraikiz, kutsadura dela eta hirugarrenei nahigabe eragindako gorputz kalteengatik, kalte materialengatik eta ondoriozko galerengatik, hau da, materia edo substantziak lurrian, uretan edo airean sartzeagatik edo sakabanatzeagatik, betiere haien kalitaterako arriskutsua edo kaltegarria den narriadura eragiten badute.

Datozen urteetarako klima aldaketa arintzeko helburu gisa, Fundazioaren bi zentro berri ireki dira, biomasaren eta gasaren kontsumo hibridoko galdarekin. Halaber, beste zentro batzuetako galdarak ordeztu dira galdara efizienteago batzuekin, berotegi efektuko gasen emisioak murrizteko. Kontsumoa ere murriztu da, eta autokontsumorako plaka fotovoltaikoak ipini dira. Hori guztia datozen urteetan nabaritu beharko litzateke.

Gainera, egoitzen liburu berdea sortzen parte hartu dugu beste egoitza batzuekin eta Aldundiarekin batera, 2030-2050 aldiko helburuei begira ingurumen jardunbide egokiak garatzeko.

Erakundearen kontsumoak egoitza plazen arabekoak dira (891 plaza)*, eta, beraz, Matia Fundazioa, Gerozerlan eta Petra Lekuona hartzen dira kontuan, Institutuak

Zaintzatarik eta Goxarak ez baitute egoitza plazarik. Nolanahi ere, paperaren kontsumoa salbuetsi behar da, eta murriztu egin da zero papererako joera dela eta. Gainera, erabilitako paper oro birziklatua da.

Ondoren, kontsumoek aurreko urteekin alderatuta izan duten bilakaerari buruzko datuak aurkeztuko ditugu, aurten datua osatu gabe badago ere. Izan ere, data desberdinetan bi zentro berri ireki direnez gero, ez ditugu kontsumoen datu errealak. Datuak 2024koekin zuzendu eta osatuko dira.

Matia Institutuko, Zaintzatariko, Goxarako eta Matia Eneako lantokiek kontsumo batzuk Matiako zentroren batekin partekatzen dituzte, eta, beraz, datuak Matiako datuen barruan daude. Dena dela, erakunde horien lantoki gehienak ez dira gureak eta kontsumoak Aldundiarenak edota kokatuta dauden udalenak dira.

- Argindar kontsumoa kWh-tan

	MATIA FUNDAZIOA	GEROZERLAN	MATIA INSTITUTUA	ZAINTZATARI	GOXARA	MATIA ENEA	GUZTIRA
2020	-	-	-	-	-	-	3.526.990
2021	-	-	-	-	-	-	3.575.378
2022	-	-	-	-	-	-	3.514.581
2023	2.623.641	757.225	-	-	-	-	3.380.866

- Ur kontsumoa m³-tan

	MATIA FUNDAZIOA	GEROZERLAN	MATIA INSTITUTUA	ZAINTZATARI	GOXARA	MATIA ENEA	GUZTIRA
2020	-	-	-	-	-	-	86.607
2021	-	-	-	-	-	-	86.185
2022	-	-	-	-	-	-	90.248
2023	85.479	19.717	-	-	-	-	105.196

- Gas kontsumoa kWh-tan

	MATIA FUNDAZIOA	GEROZERLAN	MATIA INSTITUTUA	ZAINTZATARI	GOXARA	MATIA ENEA	GUZTIRA
2020	-	-	-	-	-	-	5.961.761
2021	-	-	-	-	-	-	5.327.580
2022	-	-	-	-	-	-	5.393.770
2023	2.620.690	541.870	-	-	-	-	3.162.560

- Biomasa kontsumoa kWh-tan

	MATIA FUNDAZIOA	GEROZERLAN	MATIA INSTITUTUA	ZAINTZATARI	GOXARA	MATIA ENEA	GUZTIRA
2020	430.659	-	-	-	-	-	430.659
2021	501.547	-	-	-	-	-	501.547
2022	347.028	-	-	-	-	-	347.028
2023	347.028	-	-	-	-	-	347.028

- Paper kontsumoa 500eko PAKETEtan

	MATIA FUNDAZIOA	GEROZERLAN	MATIA INSTITUTUA	ZAINTZATARI	GOXARA	MATIA ENEA	GUZTIRA
2020	-	-	-	-	-	-	1.872
2021	-	-	-	-	-	-	1.597
2022	-	-	-	-	-	-	1.493

Ikus dezakegunez, kontsumoek behera egin dute zentro berriaren daturik ez dagoelako, baina uraren kontsumoak gora egiten jarraitzen du, eta baliteke egoitza unitateetan garbigailu eta ontzi garbigailu gehiago jartzeagatik izatea (PCP ereduari begira).

Isurketen, zaborren eta hondakinen kudeaketa egokia²

Gure erakundearen **CO₂ isurketa zenbatetsiak** (erabilitako datuak erakunde osoaren datu orokorrak baitira) karbono aztarna kalkulatzeko Eusko Jaurlaritzaren tresnaren (2020) bidez zehazten dira, eta erabilitako erregai eta energia motak eragindakoak dira gehienak. Fundazioan erregaien erabilera arduratsua sustatu dugu, 2023ko datuetan hiru irismenak barne hartuta (zuzeneko emisioak, energia bidezko zeharkako emisioak eta zeharkako beste emisio batzuk).

Fundazioaren egoitza plaza bakoitzeko **1,46 tona CO₂** kalkulatu dira. Kalkulu tresnaren arabera, **1.286 tona CO₂** isuri dira guztira, hau da, aurreko urtean baino gutxiago, baina oso aldaketa txikiarekin; izan ere, gaingitu egin da hasierako datuak 2030erako % 10eko proportzioan murrizteko helburua, eta orain mantentzen saiatu beharra dago.

	2019	2020	2021	2022	2023
Tonak plazako	3,03	2,64	2,36	2,35	1,46
Tonak, guztira	2.494	2.249	1.990	1.985	1.286

Argi artifizialaren bidezko **argi kutsadura** ere kontrolatzen da, ingurumenari eta biodibertsitateari dagokienez, inguruko espezieen ugalketa modua ez eragozteko. Hona hemen argi kutsadura kontrolatzeko jardunbide egoki batzuk:

- Benetan behar duguna soilik argitzea.
- Benetan behar dugunean soilik erabiltzea.
- Horizontaletik gorako argi fluxua saihestea.
- Argi intrusioa (argitu nahi dugun eremutik kanpo doan argitasuna) saihestea.
- Behar dugun argitasun maila soilik erabiltzea; hala, piztu eta itzaltzeko denbora ez ezik (2. puntua), argiaren intentsitatea bera ere kontrolatzea.

Kutsadura akustikoari dagokionez, gure zentrorik gehienak bizitegi eremuetan daudenez, zaratarik handiena ibilgailuen zirkulaziotik eta karga eta deskargetatik dator. Eremu horietan eraginik ez izateko, hondakinak biltzeko eta materialak kargatzeko eta deskargatzeko ordutegiak hartzen ditugu kontuan, eta saiatzen gara jardura horiek

² Guztizko plazak uztailaren 14tik aurrera, Egurtzegi zentroa irekitzean; plaza kopurua egiturazko kontsumoaren arabera hartzen da kontuan.

merkataritza orduetan egiten, ahalik eta inpakturik txikiena eragiteko, bai gure erabiltzaileengan, bai gure ingurunean. Gure zentroen barruan ere jardunbide egokiak sustatzen ditugu, zarata fokuak saihesten baititugu otordu eta siesta orduetan, gure erabiltzaileen eta langileen ongizatea hobetzeko. Gainera, zarata txikiagoa sortzen duten zoru porotsuak ditugu.

Gure jardueraren ondorioz **sortutako hondakinik** gehienak etxeko hondakinak eta hondakin sanitarioak dira, baina baita hondakin arriskutsuak ere. Horretarako, Kudeaketa Integratuko Eskuliburuan jasotako hondakin arriskutsu eta sanitarioak kudeatzeko sistema bat dugu, dagozkion prozedurekin.

Erakundearen sortutako hondakinak hondakin motaren arabera bereizten dira, eta gehienak erabat errebalorizatzen dira edo suntsitzeko baimena duten enpresek kudeatzen dituzte.

Janaria alferrik galtzeari dagokionez, ahalik eta gehien murriztu da produkzio eremuan, eta ez da iristen guztizkoaren % 2ra. Eskaerak beharrezkoa dena mugatu dira. Errezeta bakoitzean erabili beharreko osagaien kopuru zehatza kalkulatu duen aplikazio bat ari gara lantzen, prestatu beharreko menu kopuruaren arabera, eskaerak eta alferrik galdutako janaria ahal den neurrian doitzeko.

2023an honako hauek izan dira, plaza kopuruaren arabera haztatuta:

HIRI HONDAKINAK (kg)	2019	2020	2021	2022	2023	KUDEATZAILEA
Hondakin organikoen kiloak	310,54	413,6	370,7	371,6	321,57	% 100 errebalorizatuta
Errefus kiloak	1.059,37	1254,8	998,04	1.009,7	1.278,18	% 100 kudeatzaile mankomunatuaren esku
Paper eta kartoi kiloak	549,05	727,3	82,65	356,01	155,52	% 100 errebalorizatuta
Ontzi kiloak	494,33	564,2	302,8	214,84	278,64	% 100 errebalorizatuta
Beira kiloak	13.971	16.079	15.780	15.916	3.475**	% 100 errebalorizatuta

**Beira asko murriztu da; izan ere, sukaldean kontsumitzen zen batez ere, eta hornitzaile berriak plastikozko botilak edo brikak bidaltzen ditu orain.

BESTE HONDAKIN BATZUK (kg)		2019	2020	2021	2022	2023	KUDEATZAIL-LEA
Guztira sortutako hondakin arriskutsuak, kilotan (aerosolak, ontzi kutsatuak, bateriak, parafina)		1.865	1.723	895	476	1.017	Hondakin
Kudeatutako hondakin geldoak eta tamaina handikoak, kilotan		4.400	1.980	7.820	3.990	8.180	San Marcos
60 l-ko bidoi pila		1	1	1	1	0	Ekopilas
Erabilitako landare olioak, kilotan		1.890	1.140	1.950	1.110	860	Ekograss
Hondakin sanitarioak, kilotan	Sanitarioak	401,2	3.7466,3	13.864,2	18.078,3	982,2	Elirecon
	Ebakitzailleak edo zorrotzak	184,7	115,6	100,1	45,3	32,45	
	Zitostatikoak	50,25	71,55	22,85	16,95	6,85	
	Iraungitakoak eta hondakinak	487	338	358	355	539	